Tesi doktoral honen zatirik funtzeskoenak ikuspegi inte- gratzaile batetik ikergaitzat hartzen ditu ondoko aspektuak: murgiltze-programen curriculum, irakasleen irakaskun- tzazko prozedurak eta ikasgela barneko diskurtsoa eraiki- tzeko irakasleak eta ikasleek elkarrekin martxan jartzen dituzten elkarrizketa-prozedurak. Ikerketa honetan ere biga- rren hizkuntzaren eskurapena eta eskolako edukinen nego- ziazioa bultzatzeko funtzio bikoitza betetzen duten baldin- tza hezgarriak aditzera ematen dira.

Hizkuntza garapenaren aroa

Maria Jose Ezeizabarrena

Filologia, Geografia eta Historia Fakultatea

E.H.U. Vitoria-Gasteiz

Haurrek ez dute helduek bezala hitz egiten, eta alde hau nabarmenagoa izan ohi da haurra zenbat eta txikiagoa izan. Badirudi hasierako izate bizidun ia erabat isil hori izatetik hiru urte inguruko mutil edo neska koskor berritsua bihurtu bitarteko prozesua ez dela bapatean gertatzen. Baina noiz, nola, zenbat pausotan gertatzen da aro batetik besterako iragatea? Egoera arruntean haurrak bere ama-hizkuntza denbora gutxian eta inolako nekerik gabe bereganatzen du. Helduek, ordea, bigarren (edo hamaikagarren) hizkuntza ikasteko neke eta eraman haundiagoa behar izaten dute.

Askoren ustez, hasierako *hizkuntza aurreko* aroa eta beranduagoko *hizkuntza aroa* bereiz daitezke, hasieran ahoskatutako soinuak *hotsak* direla eta hizkuntza garaiko aroan, aldiz, *hizkuntza-soinuak* direla esanaz.

Haurra jaiotzatik ikasten ari da: egun gutxitara soinuak nondik datozen ezagutzen du; hiru asteetarako giza-ahotsa (emakumezkoena, eta amarena batez ere) bereizteko gai izaten da; bi hilabeteetarako soinu herskariak, sei hilabeteetarako *p* ahoskabea eta *b* ahostuna bereizten dituen bezala; beraz, nolabaiteko irudikatze mentala egiteko gauza ageri zaigu ume txikia. Beranduxeago, prosodian horren garrantzizkoak diren zenbait bereizketa ere egiteko gauza izaten da: adibidez, urte eta erdirako hizkuntza jakin bateko erritmoak, edota azentuaren bidez informazio berria eta zaharra bereizteko gauza izaten da, ulermen mailan. Bereizketa baliabide hauek, poliki-poliki prestatuz egiten dute hizkuntzarekin hasten denerako,

eta hala, hizketan hasten denean, lehenengo, berria dena adierazten saiatuko da (Bruner 1990).

Baina hizkuntzarako gaitasuna, gainerako gaitasunen garapenarekin batera ote dator? Era bateko baino gehiagotako erantzunak topa daitezke arituen artean: askok uste dute adimena eta hizketarako gaitasuna batera datozela, esperientziaren ondorioz. Baina gauzekiko esperientzia eta adimenaren aurreratzea ez da nahikoa hizkuntza bereganatzeko, eta hala, Vigotskyren eskolakoen ustez hizkuntzaren ezaugarri garrantzizkoena gizarte-komunikaziorako baliabide izatearena izanik, hizkuntza garapena gizartearekiko harremanen ondorioz bakarrik gerta daiteke.

Honetan, amaren egitekoari izugarritzko garrantzia eman ohi zaio, haurren hizkiderik ulerkorrenari, alegia. Ama haurrak ahoskatutakoari esanahia bilatzen saiatzen da, "esan omen duena" "ulertzen". Horrek ez du esan nahi, haurrak ahoskatutako guztia amak eman dion esanahiaren adierazlea denik, nahiz eta amak halako soinua entzunda "goseak al zaudede, maitia?" esan eta bularrean jarri. Haurrak eta bere hizkideak hots-trukeen artean nolabaiteko sistematasuna erakusten dute, egoera berdintsuetan esaldi antzekoak gauzatuaz, eta hala, haurra zenbait jokabide edo esaldi aurreikusteko moduan gertatzen da, abstrakzioak egiten dituela (Aguado 1995:38).

Baina, haur guztiekin antzeko hizkuntza gaitasunaren garapen prozesua gertatzen ote da? Badirudi nolabaiteko sistematasun komuna topa daitekeela kultura desberdinetako haurrek erakutsitako antzerako bilakaeran edota hizkuntza desberdinetako amek haurrei zuzendutako hizkeraren ezaugarrietan doinuari, azentuari, etenei, etab. dagokienean, inoiz

hizkuntzako prosodia erregelak ere urratzen dituztelarik.

Hizkuntza garapenaren ikaskuntzan aroak bereiztu izan dira, baina proposatutako aroen banaketa ez da beti bera izaten, eta ereduaren, ikerketa arloaren edota aztertutako datuen arabera aldatzen dira. Ondorenean, zenbait bilakaera proposamen zerrendatuko ditugu.

1. FUNTZIONALISMOA

Hizkuntza komunikazio helburuen ikuspegitik aztertu ohi den funtzionalismoaren barruan Hallidayk *hizkuntza azaldu aurreko* garaiko funtzioen sailkapena egin zuen, ondorengo banaketa proposatzerakoan (Aguado:1995:42-43). Ikertzaile honen usterako hizkuntza ez da II. aroa baino lehenago has- ten.

I. aroa: *garai simbolikoaren aurreko* aroa (5 hilabeteak arte)

Lehen bitarte garaia (5-8 hilabeteak).

II. aroa: simbolikoa, *protohizkuntza* (8-16 hilabete)

Bigarren bitarte garaia (16-24)

III. aroa: simbolikoa, *hizkuntza* (2 urtetik aurrera)

Urte betearen inguruan (II. Aroa), haurra helduak *hitzak* legez ezagutu ohi dituen sekuentziak ahoskatzen hasten da, gehienetan bina silabatakoak. Baina hauetako asko, aurretik helduari behin eta berriro esaten entzun ondoren ekoiztutakoak, eta helduak erabilitako testuinguru berean bakarrik esan ohi ditu, eta helduarekin esperientzia bera bizitzeko erabili ohi ditu gehiago, bizitutakoari buruzko zerbait adierazteko baino. *Lexiko aurreko* garaia deitu izan zaio aro honi.

Hilabeteren bat berandua- go, haurra hitz hauek beti testuinguru berari lotu gabe erabiltzen hasten da, era autonomoan, beraz, eta keinuak baino adierazgarriagoak direla konturatuta, hizkuntzak errealitatea irudikatze-ko duen erabilgarritasunaz jabetzen da. Aro honi *holofraseen* aroa ere esan ohi zaio. Holofraseak, helduek haurrari ulertu diotela diotenean entzundako silaba gutxitako esapideak dira. Izena, askotan gurasoek soinu-kate horiek esaldi osoak bezala ezagutu ohi izanetik dator. Helduaren ikuspegitik *esaldi* osoa zein *hitza* den soinu katea, haurraren ikuspegitik gertaera multzo oso baten adierazgarria izan daiteke, besterik gabe, bi kasuetan.

Bigarren arotik aurrera haurrak esanahiak osatzen

ditu sistemen barruan, eta sistemak funtzionalak dira testuinguru desberdinetan erabiltzen baititu helduekiko elkarrekin- tzak konplexuagoak bihurtzen doazen heinean: gauza da eska- tzeko, harremana adierazteko, galdetzeko, agerian ez dagoen zerbaiti buruz hitz egiteko, etab., baina ez hitzen bidez infor- mazioa lortu eta helarazteko.

Hizkuntzaren berarizko funtzioa, informazioa lortu eta helaraztearena bi urteak pasata erakusten du haurrak, III. aro- an.

2. FONOLOGIAREN JABEKUNTZA

Hirugarren egunetik aurrera haurrak desberdin erantzuten du silaba kopurua aldatzen bada. Bost edo sei hilabete ingur- uan haurrak soinu-kateak ahoskatzen hasten dira. Soinuak ahoskatze honek jolas moduko ekintza baldin badirudi ere, haurrarentzako ariketa oso garrantzizkoa da. Hala, *nahi* gabe atera zaizkion zenbait hots *errepikatzen* hasten da, eta piska- naka ekoizpenen gidaritza menderatzeko gauza bihurtzen doan heinean, eta helduaren laguntzarekin soinuak esanahi edo funtzionaltasunarekin erlazionatzen ikasita, gero eta hel- duen hizkeratik hurbilagoak gauzatzen ditu.

Jakobson eta Lenneberg bezalako ikertzaileen usterako hots hutsen aroa eta hizkuntza hotsen aroaren artean nolabaiteko *etena* dagoela pentsatu beharra dago. Funtzionalisten ikus- pegitik, aldiz, aurreratzea etengabeko ikaste prozesua izaten da.

Hizkuntza unitate konkretuak aztertzen aritutakoek, ordea, hasierako hizkeraren eta ondorengokoen ezaugarriak aztertzen aha- legindu ondoren, bilakaera argia dagoela ikusi ahal izan dute jabe-kuntza proze- suan, eta hala adierazi zuen Jakobsonek bere soinuen jabe-kuntzarako hurrenke- ra unibertsala aurkezterakoan, soinu batzuk beste batzuen aurretik berega- natzen direla eta.

Beste hizkuntzetako ikerlariak bezala, Hernández Pinak (1984) dio- enez, berak aztertutako haur gaztele- radunak urtearen inguruan ahos- katzen ditu lehenengo fonema edo hizkuntza-soinuak. Honen hurrenkera Jakobson- arekin bat dator neurri haundi batean: bokal- lak oso goiz ageri dira, bai- na ez denak, atzekoak (*o*, *u*) berandua- go agertzen dira eta, aurreko- ak baino (*a*,



Arrasateko Umezaintza

e). Kontsonanteen artean ere badago nolabaiteko aldea, goiz eta maizen ageri direnak herskariak (*p, b, t, d*), eta 13 hilabeteetatik aurrera sudurkariak (*m, n*) baitatoz. Gainerakoak, beranduago. Badira ordea, Jakobsonenaz bestelako hurrenkerak erakusten duten haurrak ere, esate batera, Hernández-en haurrak goizago ahoskatu zituen bokale arteko *b* frikariak (β), *b* herskariak baino, edo lehen ahoskatutako bokala *i*-a izan zen Aguadok aztertutako haurraren kasuan.

Unibertsala dirudien beste urratsa, silabaren egituraren ikastearena dugu. Edozein hizkuntzako haurrak hasieran bokal hutsez osatutako (B) edo bokalez amaitutako (KB) silabak bakarrik ahoskatzen ditu, eta beranduago hasten da bestelako bokal eta kontsonante multzoak gauzatzen (BK, KBK, KKB), Carreirak (1991) edo Lleóck (1986) dioten bezala. Hemezortzi hilabeteen inguruan errazte edo asimilazioak egiteko joera erakusten dute, eta hala, bukaerako, edo pareetako zenbait kontsonante ahoskatu gabe geratu ohi dira maiz. Euskaraz ere *papo, du* bezalakoen ahoskerak goizago menderatzen dituzte kontsonantez amaitutako silabak baino: *ba(t), be(s)te, e(z)taki(t), dau(z), du(t)*. Bestalde, azenturik gabeko silabak ere ahoskatu gabe geratzen errezenetakoak izaten dira hasieranⁱⁱ. Iraupenari dagokionean, bi eta hiru urte bitartean lortzen du haurrak soinuaren luzera helduen moduan gauzatzea. Azentuaren bidezko zenbait bereizketa ere menderatzen ditu ordurako (Aguado 1995:69).

3. BILAKAERA SEMANTIKOA

Hizketan ari zaion amari jostailuaren izena entzunda, zortzi hilabeteeko haurra gauza da burua gauza dagoen aldera mugitzeko, beraz, soinu-kate osoko zenbait zati bereizteko gai ageri zaigu haur txikia. Hasieran (10 hilabete inguru), esapide osoei ezartzen dizkie esanahiak haurrak.

Ordurako haurra esaldi osoen doinuak ahoskatzen, testuinguru jakin batzuetan zenbait hitz egokiak esaten eta abar ohi-tuta baldin badago ere, gauzak helduak ulertzeko moduan izendatzearena, hilabete batzuk beranduago gertatu ohi da, 10-14 hilabeteetan. Hasierako hitzek prozesu konplexuko egitate multzo oso bat adierazten dute, adz. *papo* dioenean haurrak 'bukatu da, jan dut, ez dago, joan da...' esateko erabili ohi du.

Beranduxeago, esapiderearen esanahidun zati txikiagoak ezagutu eta konbinaketa berriak egiten hasteko moduan izaten da (Garay-Gordobil 1991). Momentu horretatik aurrera, hitza, erreferentziala, hitzarmenezkoa eta testuinguru berrien araberako esanahi berriak adierazteko baliagarria dela konturatzten da, eta izena, esaldia izatetik *denotazioa* izatera pasatzen da. Hala ere, imitazioa gerorago ere hiztegia aberasteko era egokia izango du haurrak.

Hitzak ezagutzen hasten den garaian gertatzen da *hiztegi leherketa* deitutako aldaketa nabarmena. Lan askok erakutsi dute 12-18 inguruko hiztegi urriaren (3-4 hitz berri hilabete-ko) ugaritze nabarmena hurrengo hilabeteetan (10-20 hitz berri egunean). Urte eta erdia aldera ageri dira hitzak eta bestelako unitateekiko konbinaketak: *zaldi hau*.

Orokorrean, hasieratik, eta baita bi urteko adinaz ere, haurraren hiztegia nagusiki izenez, izenondoez eta aditzez osatuta dagoen bezala (klase irekia), lokailuak, postposizioak etab.

(klase itxia) oso urriak izaten dira. Klase irekian ere, badaude aldeak, ugariak izenak (%60), gero aditzak (%18) eta azkenak izenondoak (%10) direlarik. Euskarazko datuek beste hizkuntzetan topatutako antzeko proportzioak erakusten dizkigute (Elosegi 1991): izenen artean bizidunak maizago ageri dira, bizigabeak baino. Haietan pertsonenak dira ugariak (%35), bizigabeen artean ibilgailuenak (%22) ageri direla maizen. Aditzen artean, berriz, ekintza, mugimendua, egoera aldaketa adierazten dutenak ageri dira batez ere (%60).

4. GRAMATIKAREN JABEKUNTZA

Alor honetan ere bilakaera nabaria ikus daiteke hasierako holofraseetatik hiru edo lau urteetako esapideetarako bidean. Euskararen jabe-kuntzan azertuak izan diren zenbait ikergai: Izen sintagma, deklinabidea, aditz jokatu eta menpeko esaldiak ez ditugu hemen zehaztuko, horretarako artikulua bereziak daudelako bilduma honetan (Barreña-Zubiri, Zubiri, Barreña, Elosegi)ⁱⁱⁱ. Lan guzti hauetan aurkitzen den ondorio-etako bat, hasierako morfologiarik eza da, edozein arlori gagozkolarik ere.^{iv} Datorrenean, aditz jokatuaren aspektua eta aldiaren jabe-kuntzaren berri emango dugu, labur-labur.

ADITZ JOKATUA

Euskal aditzaren ezaugarrietako bat bere morfemen ugari-tasuna da. Aditzak komunztadura isladatzen du pertsona eta numeroan subjektuarekin eta bi objektuekin, aspektua (burutua/ez burutua), aldia (orain/lehen), modua (erreal/hipotetiko/ahalera/agintera), eta abar.

Hasierako garaian aditz gehienak aspektua, modua edo aldiaren markarik gabe ageri dira, eta pertsona markak ere oso urriak izaten dira (1), gehienak formuletan eta kopuletan. Bestela esanda, hasierako euskeran ez dago aditz morfologiarik.

(1) apu(r)tu (O 1;06); ken(d)u (M 1;07); ha(r)tu (P 1;11), bota (J 2;01)

Aspektu markak bi urteak inguruan agertzen badira ere (2), iraganaldi markek hilabete batzuk beranduago agertzen dira (3)^v.

(2) sartuten da (O 2;03); tasi (jausi) da (M 1;10); joan da (P 2;05); pipitu (garbitu) da (J 2;08)

(3) hau zan zurie (M 2;10); non egon zen (J 3;05).

Modua adierazteko helduen hizkeran erabili ohi diren ahalerazko edo subjuntibozko laguntzaileak ez dira agertu ere egiten hasierako urteetan. Horretarako nahiago dute *behar, ahal*-ekiko perifrasiak, edota aditz jokagabeak (*egiteko*).

Lau urteetarako, aspektua, pertsona, eta aldia bereganatua baditu ere, objektuarekiko komunztadura eta moduaren markaketa ez da oraindik helduen hizkerakoa bezalakoa. Aditz marken jabe-kuntza bukatzeke dago oraindik adin honetan.

Haurraren hizkuntzaren hasierako urratsen berri eman ondoren, ikus dezagun helduen haurrekiko hizkera nolakoa den.

5. HAURREKIKO HIZKERA

Edozein egoeratan, hizkuntzaren bidezko komunikazio egokia gertatzeko beharrezkoa izaten da hala moduzko *sopinkotasun* edo *konplizidadea* bi hizkideen artean, eta are gehiago bietakoren batek hizkuntza ongi menderatzen ez badu. Gizakiak berezko gaitasuna erakusten du hizkuntza arrotzeko norbaitekin, edo adimenez oso aurreratua ez denekin hitz egiterakoan hitz egiteko modua egokitzeko, eta jakina, esan beharrik ez, baita haurrekin ere. Hala, helduak haurrekin hitz egiteko erakusten duen hizkera, erregistro berezi bati dagokion hizkuntzaren *azpisistema* bat dela esan daiteke.

Zertan datza ordea hizkera egokitze edo moldatze hori? Zubiriren usterako, hizkera berezi honen bidez helduak^{vi} bi gauza lortzen ditu: batetik, hizkera "erraztua" denez, haurraren hurbiltzea, eta bestetik, haurrarena baino landuagoa izanik ondo hitz egiteko eredia eskeintzea. Zubirik bere 1995eko lan interesgarrian erakusten digun bezala, euskara berezi horrek baditu zenbait ezaugarri:

Berezitasun fonetikoak

Txistukari afrikatuak (*ts*, *tz*) eta frikariak (*s*, *z*) sabaikari bihurtzen dira (*x*, *tx*) (4), baita izen berezietan (5), edo izenak ez direnetan ere (6).

(4) neska > nexka; gizon > gixon; zaldi > xaldi; salto > xalto.

(5) Donostia > Donoxtia; Egoitz > Egoitx; Zarautz > Xarautx

(6) ez > ex; zer > xer; esan > exan; izutu > ixutu; atzo > atxo

Urkariak (*r*, *l*) (7) eta herskariak (*t*) (8) ere sabaikari bihurtzen dira (*ll*, *tt*).

(7) polita > pollitta; pala > palla; ekarri > ekalli

(8) bat > batt; kontua > konttua

BEREZITASUN MORFOSINTAKTIKOAK

Zenbait hitz ezin dira aditz edo adizlagun edo... legez sailkatu. Zer da *apapa*, aditza?, aditzondo? (9).

(9) apapa Unairekin

Haurrekiko hizkerako hitz berezi batzuk, izen bereziak bezala erabiltzen dira, mugatzaile gabe (10).

(10) non da pitxitxi [katua]?

Beste batzuk batzutan mugatzaile edo besteetan gabeak agertzen dira (11).

(11) tete/ tetea [txupetea]; mu/ mua [behia]

Baina gehienak mugatzailearekin ageri dira (12).

(12) txitxia [haragia]; ñiña [haurra, umea]; pipia [txoria]; tutua [kotxea];

Beste hitz asko beti absolutibo kasuan agertzen dira, bestelako kasuetarako deklinatu gabe (13).

(13) kikak [hortzak]; mainak [negar]; kaka

Aditzari dagokionean, helduek askotan ezabaten dute laguntzailea, nahiz eta aspektu markak gauzatu (14-15).

(14) gero emango nik

(15) zeinek abesten zuri?

Errepikatze joera ere ezaguna da (16-17)

(16) Unai ikusi al duzu Unai?

(17) Pitxitxiri eman al diozu ñañan pitxitxiri?

Eta baita hitz onomatopeikoak erabiltzekoa ere. Batzuetan silaba edo soinu errepikapenak erakusten dituztelarik (18)

(18) kan-kan; kurrux-kurrux; uau-uau; kix-kix [moztu].

HIZTEGIAREN BEREZITASUNAK

Haurrekiko hiztegiak berak ere baditu berezitasun batzuk: hitz gehienak (%60) k-, p- eta t- bezalako herskari ahoskabez hasten dira (20), bokalez hasten direnak oso urriak diren bezala. Dena den, badira a-z hasitako hitz batzuk (%8) (21).

(20) kuku; kaka; punpa; pupu; tas-tas

(21) apapa; aupa; arre-arre

Gainerakoetatik (%20), asko m- eta n- bezalako sudurkariak hasten dira (22).

(22) maiñak; ninia

ⁱ Amak bi hilabeteko haurrari esandakoen hirutatik bik ez du esanahi lexikorik. Ik. Aguado (1993,36) eta bertako bibliografia..

ⁱⁱ Hiru urtetik aurrerako soinu ekoizpenerako ikusi Etxebarria (1997).

ⁱⁱⁱ Ikus ikertzaile hauen tesiak ere: Barreña (1995), Elosegi (1996), Zubiri (1997).

^{iv} Ikus Larrañaga (1994), eta Garay, Garai-Gordibil eta Garmendia (1994) ere.

^v Ikus Barreña (1995, 1996), Ezeizabarrena (1996).

^{vi} Zortzi urteetarako, haurrak haur txikiagoekin "helduen hizkera" erabiltzeko gaitasuna erakusten omen du (Zubiri 1995: 182).

Izen sintagmaren jabekuntza

Juan Jose Zubiri

Irakasletza Eskola

Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Iruñea



Arrasateko Umezaintza.

1. IZEN SINTAGMAREN OSAGAIK ETA EGITURA

Izen sintagmaren jabekuntza ulertzeko izen sintagmaren nolakotasuna azalduko dut lehenengo. Gure datuak aurreratu baino lehen, alde batetik, izen sintagmaren osagaiak zeintzuk diren ikusiko dugu: ardatz elementuak (izenak eta izenordainak), ardatzaren osagarriak (izenondoak eta izenlagunak) eta determinatzaileak, eta beste aldetik, izen sintagmaren egitura zein den erakutsiko dugu.

1.1. Izen sintagmaren osagaiak

Izen sintagmaren osagaiak hiru multzotan bana daitezke:

- ardatz elementuak
- ardatzaren osagarriak edo elementu atributiboak
- determinatzaileak

a) Ardatz elementuak

Ardatza osatzen duten elementu nagusiak bi dira: izenak eta izenordainak.

Izenak. Irizpide formaletan oinarrituz (artikulurik baduten edo ez begiratur) honako bi talde nagusi hauek bereizten dira: arruntak eta bereziak. Izen arruntek gehienetan determinatzailea hartzen dute (*mahaia, etxe hura, mutiko bat,...*), izen bereziek, aldiz, ez (*Felix, Donostia, Everest,...*).

Artikuluaren erabilera dela eta, aipatu behar ditugu jokiera berezia duten beste hainbat izen ere. Izen hauek erdaratik mailegatutako hitzak ditugu, eta geureganatze-mailaren arabera edo tokian tokiko hizkuntzaren barneratze-mailaren arabera hartzen dute *-a* mugatzailea (*mosto(a), whisky(a), schwepps(a), sugus(a), txupatxus(a), palotes(a),...*).

Bestalde, gure gaiarekin erabat lotuta dauden haur hizkerako izenak aipatuko dira. Izen mota hauen artean ere badira

batzuk -a mugatzailea behar ez dutenak (*pitxitxi* 'katua',... hainbat onomatopeia: *uau-uau*, *mu*,...) eta beste batzuk, berriz, artikulua behar dutenak (*totoa* 'txakurra', *ninia* 'haurra, panpina', *txitxia* 'haragia',...).

Izenordainak. Sintagmaren ardatz elementuetako beste osagaia dugu izenordainek eratzen dutena, eta berek, baka-ririk, osa dezakete izen sintagma. Mugatzaile onartzen ez dutenez izen berezitat har ditzakegu hein batean. Pertsona izenordainen barnean arruntak (*ni*, *hi*, *gu*, *zu*, *zuek* eta *bero-ri(ek)*) eta indartuak (*neu/nerau* *heu/herori*, *zeu/zerori*, *geu/gerok* eta *zeuek/zerok*) bereiz ditzakegu.

b) Ardatzaren osagarriak

Elementu osagarriek zehaztasunen bat ematen diote ardatzari. Oro har, bi motatakoak izan daitezke: izenondoak eta izenlagunak. Batzuetan ardatz elementua isildua eman dezakegu; orduan mugatzailea izenlagunari itsasten diogu (*Jonen* (*kotxe*)a *polita* da), eta ezabatu dugun izena zein den testu-ineguratik identifikatzen dugu.

Izenondoak. Arau orokor modura esan dezakegu izenondoak izenaren eskuinetara ipintzen direla sintagma eskuin aldera hedatzen (*etxe handia*, *kotxe polita*,...).

Izenlagunak. Osagarri hauek -en eta -ko atzizkiez osatzen diren osagarriak ditugu, eta joera nagusia izenaren ezkerretan jartzekoa izaten bada ere, eskuin aldean ere ediren ditzakegu, baina orduan artikuluekin agertzen zaizkigu (*gure Pello/Pello gurea*, *Torreko Maritxo/Maritxo Torrekoa*,...).

Ardatzaren osagarrien barnean beste hainbat elementu sar daitezkeen arren (perpau konpletiboak, erlatibozkoak,...) hemen ez ditugu aintzat hartuko.

c) Determinatzaileak

Artikulua. Determinatzaile honi sintagmaren eskuineko alde dagokionez, berau itxiko duen elementua da. Lehen esan duguna errepikatuz diogun sintagmaren ardatza izen berezi (edo izenordain) batek osatzen badu ez duela artikulua beharko. Jakina den bezala, singularreko forma -a da eta pluralekoa, berriz, -ak.

Erakusleak. Izenak berak dioen bezala mugatzaile hauek erakutsi, seinalatu egiten dute. Seinalatze horretan hiru gradu bereizten dira, bai espazioan eta bai denboran, hitz egiten duena ardatzat hartuz. Arruntak (*hau*, *hori*, *hura* eta hauen pluralak *hauek*, *horiek*, *haiak*) eta indartuak (*hauxe*, *horixe*, *hura-xe* eta *hauek*, *horiek*, *haiak*) bereizi ohi dira.

Erakusleek izen sintagma osoa besarkatzen dute eta honen azken muturrean ipintzen dira, oro har, bizkaierazko jokabi-dea eta harridurazko esaldiak alde batera utziz (*etxe*ko *gizon*

txiki hura, *kotxe haiek*,...).

Zenbatzaileak. Zenbatzaileek izena edo izen sintagma mugatzen dute zenbatasuna azalduz. Determinatzaile hauek, erakusleak bezala, sintagmaren ardatza isilean edo ezkutatu-rik eraman dezakete. Bi mota nagusi hauek bereizten dira: zehaztuak (*bat*, *bi*, *hiru*,...) eta zehaztugabeak (*batzuk*, *zenbait*, *asko*, *franko*, *gutxi*,...).

Zenbatzailea daramaten sintagma mugagabea (cf. *bost etxe*) nahiz mugatua (*bost etxeak*) ezartzen dira.

Hartzen duten lekuneari gagozkioari, izen sintagmaren ezkerreko aldean jartzen dira denak, *bat* zenbatzailea (eta bizkaieraz *bi* zenbatzailea ere bai) izan ezik.

Determinatzaile zehaztugabeak. Sail honetan sartzen dira mugatzaile eta zenbatzaile ez diren gainerako guztiak. Garrantzitsuenak *zer* eta *zein* galdetzaileak ditugu (*zer ordu*, *zein etxe*,...).

1.2.- Izen sintagmaren egitura

Izen sintagmaren egituraren deskribaketaz arduratu dene-tako bat Goenaga dugu (1980). Chomskyren gramatika sortzaile bihurtzailea eredutzat hartuta honako erregela hauek proposatu zituen euskal izen sintagmarentzat:

IS	a) →	(Izlg) + I + (Izondo) + (mug)
	b) →	P' + IS
	d) →	P'
Izlg	→	IS + erl. ¹

Azalpenak errazteko moldaketaren bat egin dugun arren, oro har, erregela horiek azalduko lituzkete euskaraz sor daitezkeen izen sintagma gehienzkoenak. Lehenengo erregelaren arabera, hau da, a) erregelaren arabera, izenlagunez eta izenondoz osatutako sintagma azalduko lirateke (izenlagunez osatutakoa: *Mirenen kotxe*ko *eserlekuak*; izenondoz osatutakoa: *etxe handia*); b) erregelaren arabera, batez ere, erlatibozko perpauak azaltzen dira (*ikus*i *dudan mutila*); eta c) erregelaren bidez, besteak beste, konpletibozko perpauen berri ematen da (*Pello* *esan dit etorri zarea*).

Beste aldetik, izenlaguna era honetara berridatzen da: *izen sintagma* + *erlazio atzizkia*. Horrela, erregela bera behin eta berriz aplikatuz izen sintagma nahi adina luza daiteke izenlagun multzo handiagoa erantsiz (*gure etxe*ko *leihoa*, *aldapako sagarraren adarraren punta*,...). Mugatzaileari dagokionez, bakarra azaltzen da, normalean, sintagma guztia ixten duela. Era berean, deklinabideko atzizki markak itsasterakoan, izen sintagma osoak hartzen ditu eta ez osagaietako elementu bakoitzak. Ardatza beste osagaiekin edo isildurik aurkitzen dugunean ere hondarkia (artikulua + sing./pl. marka + kasu atzizkia) sintagma hersten duen unitateari gaineratzen diogu.

¹ Laburdura hauen esanahia honako hau da: IS=Izen sintagma, Izlg=Izenlaguna, I=Izena, Izondo=Izenondoak, mug=mugatzailea, P=perpaua, erl=erlazio atzizkia.

2. IZEN SINTAGMAREN GARAPENA JABEKUNTZ PROZESUAN

2.1. Ardatz elementuen erabilera

Izenak. Oro har, haurrek zuzen erabiltzen dituzte kategoria honetako hitzak. Lehenbizienak agertzen izen arruntak eta haur hizkerakoak dira -morfologi aurreko aroan agertzen dira eta-; izen bereziak, aldiz, beranduxeago hasten dira.

Goian esan bezala, zenbait izenek (arruntek eta haur hizkerako hainbatek) artikulua behar izaten dute (1) eta beste batzuek (izen bereziek (2), haur hizkerako zenbaitzuek (3), mailegatutako batzuek (4),...), berriz, ez. Haurrak ikasi egin behar du ikaskuntza prozesuan zehar zeini itsatsi behar zaion -a eta zein eman behar duen -a-rik gabe.

(1) **bulua** (burua) non (d)a? (E 2;01), **I(eh)oi**a (e)loli (erori) (E 2;02), **motoa** exin (d)a tatu (sartu) (E 2;03), hau **kotxea** da (B 1;07), hemen da **kut(x)area** (B 1;07), non (d)a **potoia**? (B 1;08), **tataia** (zartagia) pa(ra)tu (B 1;09),... pu(n)pa **ninia** (B 1;06), holli [hori] **pipia** (B 1;07), **txitxia** (B 1;11).

(2) (e)man **Goku** (E 1;11), hola **I(b)ai** (E 2;00), hau la (da) **Pi(n)tto** (E 2;07), **Nariz** [Bianditz] ttaka (B 1;06), non da (E)goitz? (B 1;07).

(3) hau **a(r)re-a(r)re** (E 2;00), **Be** (e)ka(r)ri, **be** (ardia) (E 2;01), **pitxitxi** ['katua'] i(n) do (*Margotu*) (E 2;05), (I)kuxi **be-be** ['ardia'] (B 1;08), **b(r)u(n)-b(r)un** attana (B 1;09), non (d)a **uau-uau**? (B 1;10).

(4) Ibairi **txupatxus** eman b(eh)al (d)it (E 2;10), **mosto** dahi (nahi) dut (E 2;10), (**txu**)patxus (B 1;08), **yoyu** (yogur) (B 2;04), bihar **polo** jateko (B 2;11).

Kategoria honen ikasketa dela eta, haurrek egiten dituzten hutsak (kontuan izanik hutsak ez direla inoiz %5era ere iristen) bi motatakoak dira: 1.- hitz berezizat hartzen diren izenei -a bat eranstean diete artikulua bailitza; gertakari hau batez ere haur hizkerako hitzekin gertatzen da (5); eta 2.- artikulua ez diete jartzten behar duten izenei (6).

(5) hau **kola** (gola) (E 2;03), eta **mua** jaten... (E 2;04), **mua** eta (**pi**)txitxia (E 2;04), **fua** r(ago) (B 2;05), hau nerea da **ku(r)ri-ku(r)ria** (B 2;08), hortxen pa(ra)tuko ru(t) **loa** itten (B 2;06).

(6) **afari** pa(ra)tu XXX (B 1;10), **o(r)raze** non da? (B 2;02), nik **e(r)rege** (i)kusten dut hor (B 2;09), **nini** (B 1;06), **pupu** (oinaze) (B 1;08), **pipi** (txori) (B 2;02).

Plurala. Esan daiteke, nolabait, pluralaren agerpenarekin hasten dela haurren aro gramatikala, hots, helduen gramatika-ri dagozkion ezaugarri formalak erabiltzen. Esaterako, Egoitz

haurrarekin 1;03rekin hasi bazen datuak biltzen, lehenbiziko plurala 2;00an agertzen da, eta modu emankorrean 2;02tik aurrera erabiltzen du. Beste haurren ere -desberdintasun indibidualak direla eta, lau-bost hilabeteren gora-behera izan daitekeela aintzat hartuz- prozesua guztiz berdintsua da.

Izenordainak. Hasierakoak kasu atzizkiren bat edo posposizioen bat falta duten formak dira (8). Beranduago hasten dira haurrak ongi erabiltzen, kasuak eta adizkiak erabiltzen hasten direnean hain zuzen ere (9), eta hasiera batean *ni* eta *zu* izenordainak besterik ez (pluralekoak aurrerago azalduko dira).

(7) **ha(r)rik** (E 2;00), **ahatek** (E 2;01), **palak** (E 2;02), **ha(r)rik** bota ta (E 2;02), non (d)a **kotxek**? (E 2;02), pa(ra)tu (**g**)altzer(**d**)ik (B 1;06), apo **ninik** (B 1;06), apo **katuk** (B 1;08), beitu **ttattak** ('zapatak') (B 1;08), pa[ra]tu lu(t) **pittilik** [galtzerdik] (B 1;09).

(8) **ni(-k)** (E 1;11), **ni(-reak)** (E 1;11), ekaRi **ninia** ni(-ri) (E 1;11), hau zu(-k, -retzat) (B 1;08), e(z)ta xu itxi (B 1;08), ni e(z)to (e)roriko (B 2;01).

(9) **ni**, hemen (E 2;03), **ni** ko(n)te(n)tu (E 2;04), **ni** naix Egoitz (E 2;05), **xu** ttontto (E 2;06), **ni** punpa (B 2;01), lolo **ni** (B 2;02), **ni** hemen ttaka (B 2;03), **zu** baka(r)rik gel(d)ittu (B 2;04), **ni** naix amo(r)raia (B 2;05), **zu** gero jongo za[ra] (B 2;05).

2.2. Determinatzaileen erabilera

Erakusleak. Egoitz bi hitzeko esaldiak ematen hasi bezain laister agertzen dira erakusleak '*hau kua-ku*' moduko egituretan 1;07 adinarekin eta erabilera deiktikoarekin. Bianditz eta beste haurrak ere oso goiz hasten dira mota honetako esaldiak egiten (10).

(10) **hau** **ninia** (E 1;07), **hau** tata (zapata) (E 1;08), **hau** kua-ku (E 1;08), **hau** golia (gorria) (B 1;06), **hau** kotxea da (B 1;07), **hau** (ha)utxia (B 1;09).

Baina erakuslea zinetako determinatzaile bezala eta izenki baten laguntzarekin, adibide goiztiar isolatu bakanen bat alde batera utziz gero, modu emankorrean 2;08-2;09 ingurutik aurrera erabiltzen dute bi haurrok (11).

(11) ga(ix)toa **Ego(i)tx hori** (E 2;05), **behi hau** xa(r)txe(n) da (E 2;09), in b(eh)al (d)ut ongi pa[ra]tu **itxe hau** (E 2;09), ...pixtola la [da] **goli** [gorri] **hau** (E 2;10), **xal(d)i hau** nola la [da]? (E 2;11), xe ai ra **moxo(r)ro hori**? (B 2;08), Niri jantzi **zapatia** [zapatilla] **hau** (B 2;10), **haundi hau** nahi ru(t), **haundi hau** nik (B 2;11).

Desberdintasun indibidualak direla eta, beste haur batzuk lehenagotik hasten dira. Mikel, esaterako, 2;03rekin hasten da, eta Oitz 2;05ekin. Bestalde, aurki daitezke arautik desbi-deratzen diren adibideak (12).

(12) hau eltxitxu eka(r)txeko (E 2;08), e(z)to nahi ninik hori yogu(r) (B 2;04), b(e)itu hori payaso (B 2;06), hori mina osatu bi (behar) da (O 2;06), hauek kojina horkoak dira (O 2;10), hauekin zapatilekin (M 3;05).

Zenbatzaile zehaztuak. Egoitz *izenki + bat* segida 2;03an hasten da erabiltzen eta hortik aurrera era emankorren gainera. Bianditzek aldiz, lehenbiziko adibide garbia 2;04rekin ematen du eta hurrengo 2;07rekin, eta hortik aurrera modu sistematikoan agertzen dira saio guztietan (13). Artikuluaren ezabaketa dela eta, beti ongi erabiltzen du egitura hau Egoitzek, baina Bianditzen corpusean ustezko artikulua gauzatu-tako huts berantiarren bat idoro ditugu (14).

(13) hol (hor) **bex**te bat (E 2;03), be(s)te **kot**xe bat (E 2;03), tali (zaldi) **ttiki** bat (E 2;03), hola taten [sartzen] (d)a **mo**to pat (E 2;03), yogu(r) **ttiki** bat (B 2;04), **enkargu** bat ittera se(g)i (B 2;07), ta hau **gerezi** bat (B 2;09).

(14) eta hau (e)re **panpiña** bat (B 2;08), ni(k) bada-
kit itxe **politta** bat itten (B 2;11).

Bi zenbatzailea hizpidetzat hartuz, bi hurrek goizenik emaniko adibide garbiak 2;01 eta 2;03koak dira, nahiz eta modu emankorren beranduago, 2;06 eta 2;07tik aurrera, erabili (15).

(15) bi kotxe (E 2;03), bi begi (E 2;05), ninia(k) bi u(r)te ninia(k) (B 2;01), bi muñeka (B 2;06), bi haran (B 2;09).

Zenbatzaile honekin hainbat berezitasun suertatzen da. Hasteko, diogun zenbatzailea lekunez aldatua duten adibideak aurkitzen ditugula. Bizkaieraz arruntā izan arren beste euskalkietan ez da zilegi jokabide hau, baina hurrek, hala ere, egiten dituzte honelako ordena aldaketak (16).

(16) Unai **bi** (E 2;03), ...**hau(k) bi** elama(n) b(eh)al (d)ut putxura (E 2;09), (he)men **tximeleta bi** (B 2;01), **txitxo** (txito) **bi** (B 2;08), hola **esku biek**in lotu b(eh)ar (d)a (B 2;10).

Beste aldetik, haurrak berehala jabetzen dira zenbatzailea daraman sintagma mugagabeetan artikulua ezabatu behar zaiola izenari; eta zenbaitetan, ikasi duten arau hori gainorkortuz, -a berezkoa duten hitzei ere ezabatu egiten diete amaierako bokala artikulua delakoan (17).

(17) **bi alox** (arros(a)) (E. 2;06), **bi pilot** (E. 2;10).

Zenbatzaile zehaztugabeak. Determinatzaile hauekin eratutako lehenbiziko sintagma ardatz elementurik gabekoa da eta nahiko goiz hasten dira agertzen. Baina izenkiarekin sintagma osatuz, *izenki + zenb.* egitura, 2;05 eta 2;08tik aurrera aurkitu ditugu Egoitz eta Bianditzengan (18).

(18) **kolore axko** (E 2;08), Pux-**pux(l)e axko** (E 2;09), **lolo axko i(n) b(eh)al (d)o ta** (E 2;09), **opari asko** (B 2;05), **txupete axko** rut, eh (B 2;07), **urare (udare) asko** (B 2;11).

Dena den, *izen + zenb.* segida dutenen artean tarteka (sasi)artikulua duten ekoizpenak ere topatu ditugu (19):

(19) indala (indarra) axko... (E 2;10), belala (belarra) axko ta (E 2;11), belala (belarra) axko ja(n)... (E 2;11), hara ura a(s)ko (B 1;08;), non da, eh, papera asko? (B 2;05).

Ohartu egitura mota hauen araua lehendik ere ikasia dutela, zeren erregela -zenbatzaile zehaztuekin gertatzen den bezala- gehiegi hedatzen baitute zenbaitetan (20).

(20) **Muxi(ka) pixko bat**, eh! **Muxik(a) pixko bat**, eh (B. 2;06)

Determinatzaile zehaztugabeak. *Ze(r)* determinatzailea Bianditzen corpusean 1;07 adinetik aurrera eta Egoitzenean 2;01tik aurrera aurkitzen dugu. *Zein* galdekaria, aldiz, bi hurrengan beranduago, 2;04tik aurrera, ikus dezakegu (21).

(21) hau **xel** (d)a? (E 2;01), (he)men **te la** [zer da]? (E 2;01), hori **zel** (d)a? (E 2;02), **txel** (d)a hori txel (d)a? (E 2;02), **tei(n)** [zei(n)] da ba? (E 2;04), **xei(n)** da? (E 2;05), **ze(r)** da hau? (B 1;07), **xer** ar)i da atta? (B 1;08), hemen **xe(r)** da? (B 1;11), hori **zer** (d)a? (B 2;01), **zein** da? (B 2;04), **zein** hase[rra]tu da? (B 2;04).

Determinatzailearekin batera forma mugagabeen ediren daitezkeen adibideak oso urriak dira eta nahiko beranduak gainera. Egoitzek, esaterako, ez du alerik ematen eta Bianditzek bat besterik ez (22). Hala ere, badira mota honetako sintagma lehenagotik ekoizten hasten diren haurrak.

(22) **ze jostallu?** (B 2;11)

2.3. Elementu osagarrien erabilera

Eskuin aldera hedatzen diren sintagma, edo nahiago bada, *izen + izenondo* egitura duten multzoak goiz hasten dira agertzen (23), baina ustezko hutsak dituzten sintagma ugarriagoak eta sistematikoagoak dira. Hutsen kopurua izugarri igotzen da portzentualki (%15 baino gehixeago) eta bi hurrek hutsak egiten jarraitzen dute -aski denbora luzean gainera- ia saio guztietan zehar; ez diote ardatz elementuari ustezko artikulua ezabatzen arauak agintzen duen bezala, nahiz eta sintagma pluralekoa izan edo beste kasu atzizkiren batez hornitua egon (24).

(24) hara ga(l)txer(d)ia be(r)ria (E 2;07), ha(r)txa u(r)diña eka(r)txeko (E 2;08), gixona golia (gorria) gañen (E 2;11), zaku(r)ra haun(d)ia (B 1;10), lolo ha(r)tza ttikia (B 2;00), ahuntxa ttikik (B 2;04), bil(d)otxa txurik (E 2;09), ho(r)txa hau(n)dik ro (du) ta (E 2;11), txokola (txokorra) be(l)txak ha(r)tu lo (do)... (E 2;10).

Ezker aldera hedatzen diren sintagmetan, hau da, izenlagunekin eratzen diren sintagmetan hasiera-hasieratik agertzen zaizkigun egiturak artikulua itsatsia dutenak dira (25), hau da, lehenbizi *-en/-ko + -a(k)* egitura agertzen da, eta beranduago ikus ditzakegu sintagma ardazdunak, hau da, *-en/-ko + izen* egitura duten modukoak (26). Haur guztiek *-en* izenlagunarekin osatutako sintagmak lehenagotik ematen dituzte *-ko* izenlagunarekin osatutakoak baino, hala ere, aipatu dugun bide edo ordena horri jarraitzen diote denek (lehenbizi artikuludunak eta gero ardazdunak).

(25) nerea (E 2;01), amana ra (da) (E 2;01), attonana (E 2;02), attanak (E 2;03), hau ho(r)koa ra (da) (E 2;03), hau no(n)goa la? (E 2;06), ... baxulekoa (basurekoa) la (da) loloka (dordoka) (E 2;10), Bia(n)di(t)zena (B 1;06), non (d)a attana? (B 1;08), hau ra (da) Xa Xena (Juan Joxena) (B 1;09), ho(r)koa no ta (non da)? (B 1;06), non (d)a hemen(g)oa? (B 1;08), gehio ka(r)riko holokoa. (B 2;00).

(26) t(r)enan gañen (d)o (E 2;03), amonan itxera hola (E 2;04), Egoitzen o(n)don do ahu(n)tza (E 2;05), hau ra (da) behin hankak (E 2;06), holako t(r)atolek (E 2;08), eta heme(n)go gixoda (gixona) no(n) da? (E 2;09), holako lehoia do (non) da? (E 2;11), Ekaitzen bizik(l)e(t)an (B 2;00), amonan baratzen (B 2;01), Unain itxen (B 2;03), hemengo (ga)uxak (B 2;02), hemengo honena hautxi in dut... (B 2;03), Bekonena-ko (Bekodendako) Jonek jo itten (d)io (B 2;03).

Egitura mota hau dela eta, eskuinaldera hedatzen diren sintagmekin alderatuz eta salbuespen isolaturen bat kenduz, esan behar da beti ongi eratutako sintagmak erabiltzen dituztela haurrek.

3.- ONDORIOAK


Determinatzaile bakoitza une jakin batean agertu eta jar-tzen da abian, alde horretatik badirudi besteekin zerikusi zuzenik ez duela. Esan daiteke determinatzaile bakoitzak bere jarraibidea duela eta bere arazo bereziak erakusten dituela.

Artikulua dela eta, haurrek ikasi egin behar dute zein ize- nek behar duen artikulua eta zeinek ez, bereizte ahalegin honetan hainbat huts egiten dituzte (huts kopurua, hala ere ez da izugarria, %2-3ra murriz baitaiteke). Alde honetatik hitz mota batzuek arazo gehiago sortarazten dizkiete beste batzuek baino. Bestalde, osagai batez baino gehiagoz eratutako sin- tagmen inguruan esan behar dugu ezker aldera izenlagunekin eratutako sintagmetan, oro har, arazorik agertzen ez bada ere, eskuin aldera hedatzen direnekin askozaz arazo gehiago dituz- tela haurrek, horrelako sintagmetan ardatz elementuari amaie- rako *-a* ezabatzea kosta egiten zaie eta (gogoan hartu egitura mota hauetan huts kopurua %15 ingurura igotzen dela).

Erakusleen inguruan gauzak ez daude hain garbi. Deter- minatzaile modura (*gizon hau* bezalako sintagmetan agertzen den modura), oro har, 2;06tik aurrera ematen dituzte haurrek eta prozesu horretan zehar badituzte zenbait arazo horrelako sintagmekin; euskalkiak (bizkaierak, esaterako) zerikusia izango du seguruenik.

Zenbatzaileak ere ongi erabiltzen dituzten arren, kausi dai- tezke ordena aldatua duten sintagmak (*kotxe bi*), bai eta araua gainorokortua duten adibideak ere (*bi pilot*). Sintagma muga- tuek, mugatzailearekin erabiltzen direnek, bestelako arazoak planteiatzen dituzte, hemen bazter batera utzi baditugu ere.

Badirudi, aldeak alde, antzeko prozesua jarraitzen dutela haur guztiek determinatzaile mota desberdinen jabekuntzan: lehenbizi *-a* artikulua eta *-k* pluralgilea agertzen da, ondotik zenbatzaileak (zehaztuak nahiz zehaztugabeak) eta azkenik determinatzaile zehaztugabeak.



Arrasateko Umezaintza

Deklinabidearen garapena

Kristina Eliseyi
Hezkuntza Zientzien Fakultatea
E.H.U.
Donostia

Arrasateko Umezaintza

1. EUSKAL DEKLINABIDEAREN DESKRIBAPENA

Lan honen helburua lau haur euskaldunek deklinabidearen arloan erakusten duten bilakabidea adieraztea da, hau da, noiz eta nola ikasten dituzten euskarak dituen kasuak, jabe-kuntza-garapenean topatzen dituzten zailtasunak, erakusten dituzten ezberdintasunak, etab.

Kontu hauekin hasi aurretik, ordea, hizkuntz arlo honen oinarrikoa azaltzea komenigarri iruditu zaigu, haurren datuak adieraztean nondik norakoak hobeto ulertu ahal izateko.

Jakina denez, euskaraz ez dira hitzak deklinatzen, Izen-sintagma osoa da deklinatzen dena. Bestalde, Izen-sintagmaren ardatza Izena delarik ere, hondarkia ez zaio nahitaez Izenari ezartzen, Izen-sintagma ixten duen elementuari baizik (1-2)

- (1) Lagun minak eman zidan
- (2) *Lagunak minak eman zidan

Euskal deklinabideak hamabost kasu ditu, hauetako hiruk aditzarekin komunztadura gordetzen dutelarik:

Absolutiboa edo NOR kasua. Kasu honek ez du ageriko atzizkirik. Funtzio ezberdinak betetzen ditu: perpaus iragan-gaitzen subjektua (3), perpaus iragankorren objektua (4) eta perpaus kopulatiboen predikatua (5)

- (3) ume-a-Ø iritsi da
- (4) seme-a-k ogi-a-Ø erosi du
- (5) mendi-Ø hori ederra da

Absolutiboaren aldaera bat partitiboa da. Kasu hau ezezko eta galderazko perpausetan agertzen zaigu NOR kasuaren ordez.

Ergatiboa edo NORK kasua. Kasu honi dagokion morfema, -k atzizkia da, eta betetzen duen funtzioa subjektuarena da, baina aditz iraganorretan baino ez (4).

Datiboa edo NORI kasua. -i atzizkia da kasu honi dagokion morfema, eta zeharkako objektuaren funtzioa betetzen du (6).

- (6) lagun-a-ri ekarri diot

Hiru kasu hauez gain, aditzarekin komunztadurarik gordetzen ez duten kasuak ere baditu euskarak:

Kasua	Atzizkia		Adibidea
Jabego genitiboa	NOREN	-en	aitaren etxea da
Leku genitiboa	NONGO	-ko	etxeko giroa ona da
Inesiboa	NON	-n	umeak ikastolan daude
Adlatiboa	NORA	-ra	Bilbora goaz
Hurbiltze adlatiboa	NORANTZ	-rantz	Baionarantz doaz
Muga adlatiboa	NORAINO	-raino	ikastolaraino iritxi dira
Ablatiboa	NONDIK	-tik	etxetik ikusi du mendia
Soziatiboa	NOREKIN	-ekin	norekin etorri da haurra?
Instrumentala	ZEREZ	-z	mailuaz baliatu zen
Motibatiboa	ZERGATIK	-gatik	horregatik egin zuen
Destinatiboa	NORENTZAT	-entzat	Mirenentzat ekarri du

2. NOIZ ETA NOLA IKASTEN DITUZTE HAURREK KASUAK?

2.1. Aditzarekin komunztadura duten kasuen jabeakuntza

2.1.1. Absolutiboa edo NOR kasua

Kasu hau aztertzerakoan azalduko ditugun datuak, aditza azaldu ondorengoak dira, nahiz hasieran aditz laguntzailerik ez azaldu. Lan honetarako erabili ditugun lau haurren corpusak erakusten digutenez, kasu hau da lehenetarikoa agertzen, nahiz ezberdintasunak aurkitu haur bakoitzaren bilakabidean. Kasu honek betetzen dituen bi funtzioak aurki daitezke haur hauen ekoizpenetan, Barreña (1995), Elozegi (1996) eta Zubiriren (1997) datuetan oinarrituz ikusi ahal izan dugun moduan.

Objektu funtzioan:

(7) pax(t)ela (e)man (B 1;06); hori ezto nahi (B 1;10)

(8) (e)karri ninia (E 1; 11); hau patu (E 2;00); hau Egoitxek (eg)i(n) do (E 2;07)

(9) pianoa gu(k) ezin jo (O 2;00); hemen da(g)u har(r)ie (O 2;03)

(10) hori eztauka haundia? (P 2;05); konponduko du(t) nire kokiki (santxeski) (P 2;07)

Subjektu funtzioan:

(11) ama tolli (etorri) (B 1;06); hau ex(t)a bo(ta)txen (B 1;09); ni e(z)to (e)roriko (B 2;01)

(12) hau la (da) (E 2;01); di (ni) badoa exkolara (E 2;07); behi hau xa(r)txe(n) da (E 2;09)

(13) azala izan da (O 2;00); argie izetu da (O 2;01)

(14) heme(n) eto (ez dago) kokea (traktorea) (P 2;02); hemen dato (dago) p(r)oblema (P 2;04)

Partitiboa edo NOR kasuaren aldaera galdera eta ezezko perpausetan, beranduago azaltzen da haur guztiengan:

(15) honek exto ñiñikan (B 2;04); b(a)ño e(z)tu goxokikan erosiko (B 2;08)

(16) lilua (dirua) exto behalikan (beharrikan) (E 2;10); xapela exto behalikan (E 2;11)

(17) ez da(g)u beste kotxerik (O 2;05); ez deko lekurik baina (O 2;06)

(18) ez, Migel Marik erdaka (ez dauka) belarrik (P 3;03;07); baina elaka (ez dauka) papalik (palarik) (P 3;04)

Lau haurrek erabiltzen dute absolutibo kasua, bai subjektu bezala, bai objektu moduan. Bi funtzio hauek Bianditz eta

Oitzengan adin berean azaltzen dira. Peruk, ordea, lehenago ekoizten du kasu hau subjektu funtzioan, eta Egoitzengan alderantziz gertatzen da, hau da, lehen funtzioa objektuari dagokio. Pluralaren erabilera beranduago lortzen dute lau haurretatik hiruk. Kasu hau gauzatzen den kategoriei begiratu, Elozegi (1996) eta Zubirik (1997) izena dela gehien erabiltzen duten kategoria ikusi dute, absolutibo guztien erdiak kategori honetan gauzatzen baitira. Hurrengo, erakusleei dagokio

Partitiboaren erabilera, bestalde, haur guztiengan oso berankorra eta urria dela ikusi dugu.

2.1.2. Ergatiboa edo NORK kasua

Inguru fonologikoak kasu honen atzizkiaren erabilera baldintzatan duela ikusi dute Elozegi (1996), Ezeizabarrena-Larrañagak (1996), Larrañagak (1994) eta Zubirik (1997). Hemen, kasu honen jabeakuntza nola ematen den azaltzen saiatuko gara, arazo hauek alde batera utziz. Hauek dira hortaz, ikus daitezkeen lehen emaitzak:

(19) amak (B 1;06); attak ura bota (B 1;08); attak epur(d)in ematen dio (B 2;02)

(20) attonak (E 2;01); hola Unai (E 2;02); gelo (gero) pu(n)pa itten (d)o (du) talik (zaldik) (E 2;03)

(21) nik dana hartu (O 2;00); nik hau nora bota? (O 2;01); berak badaki zubia e(g)iten (O 2;04)

(22) hori Begok (P 2;05); nik eman behar diot (P 2;05); baino ume txikiak ez (P 2;09)

Lau haurretatik hiruk, lehenago ekoizten dute ergatiboari dagokion kasu marka, aditzean hedatzen den komunztadura baino. Laugarren haurrek, aldiz, Peruk, lehenago ekoizten du kasu honi aditzean dagokion komunztadura, ergatiboa bera baino. Plurala berriz, lau haurren beranduago azaldu da singularra baino. Kasua gauzatzen den kategoria lexikalei begiratu, izenak eta pertsona izenordainak dira ugarienak, dudarik gabe (Elozegi 1996, Zubiri 1997). Subjektu ergatiborik gabeko ekoizpen ugari aurkitu ditugu bestalde. Jokabide hau guztiz logikoa iruditzen zaigu, kontuan izanik kasu gramatikalak aditzean islatzen direla eta ez dela, hortaz, derrigorrezkoa subjektuaren gauzapean fonetiko.

2.1.3. Datiboa edo NORI kasua

Aditzarekin komunztadura duten kasuen artean, datiboa da azken azaltzen dena hiru haurren, Oitzengan hiru kasuak adin berean azaltzen badira ere. Hona hemen haurrek ekoiztiriko lehen emaitzak:

(23) Biai-pitxi (Bianditzi) ko(z)ka (B 1;09); Hori amonari eman (B 1;10); honeri jotzen dio (B 2;04)

(24) Ibaieri (E 2;03); ka(x) kax itten hau(n)t(z)ali ta behiari (E 2;05); eta atodak (aitonak) bil(d)otx hau(n)diri jotxe(n) do (du) (E 2;09)

(25) hori niri Ju(r)gi(k) buruan ekar(r)i (O 2;00); Andoni, nik zuri t(r)ena (O 2;01) oin ja jo e(g)in dotzet (diot) kotxiari (O 2;06)

(26) nik eman behar diot (P 2;05); gizonari (P 2;07); ez d(e)itu Lideli (Lideri) (P 2;10); ez, niri ez zait gus-tatzen ezer (P 2;10)

Kasu honek aditzean gordetzen duen komunztadurari dagokionez, ergatiboarekin bezalaxe, hiru haurrengan aditzarekiko komunztadura kasu-marka bera baino beranduago azaltzen da, Perurengan alderantziz gertatzen bada ere. Hau da, haur honek kasu marka azaldu aurretik, aditzean markatzen du datibotasuna (26). Kasu honen emankortasunari begiratzen badiogu, esan beharra dago oso urria dela aurreko bi kasuekin kontrajartzen badugu. Ergatiboan gertatzen den bezala, hemen ere izenak eta pertsona izenordainak dira erabilienak. Aditz jokatua duten ekoizpenetan askotan datiboa ez da agertzen. Badirudi zehar objektuaren isiltzeko aukeraz haurrak ohartu direla, aditzean jadanik markaturik dagoelako. Plurala, bestalde, ez dute erabiltzen edo askoz beranduago azaltzen da: Oitzengan 2;08 adinean, esaterako.

2.2. Aditzarekin komunztadurarik ez duten kasuen jabekuntza

Aditzarekin komunztadurarik ez duten kasuen artean, bi genitiboak aurkitzen ditugu, eta hauek dira lehen aztertuko ditugunak. Beste kasuetatik bereizten dira batez ere, bi izen jartzen dituztelako harremanetan, eta besteek berriz izen-sintagma eta aditzaren arteko erlazioak adierazten dituztelako. Hortaz, kasu-marka hauek daramaten izena izenlagun bihurtzen da eta beti beharko du izen-sintagma bat bere ondoan. Ondoan izenik ez bada, genitiboaren marka duen sintagmak artikulua hartuko du.

2.2.1. Jabego genitiboa edo NOREN kasua

(27) Bia(n)di(t)zena (B 1;06); hau ra (da) ko(r)netan mutur(r)a? (B 2;04); hori amatxona da (B 2;06)

(28) bai, amana ra (da) (E 2;01); Ekaitzena (E 2;03); hau ra (da) behiana (E 2;06)

(29) zure ulea (O 2;00); Mikelen aita da (O 2;06); bai-na hau kamioiena da (O 2;09)

(30) nire tutua (P 2;03); ama(re)na pagoga (eskabado-ra) (P 2;04); ni monta(tu)ko naiz zure kotxean (P 2;10)

2.2.2. Leku genitibo edo NONGO kasua

(31) ho(r)koa, no ta (non da)? (B 1;06); txoko(la)te(z)koa (B 2;04); Jon bekodendakoa (B 2;04)

(32) bai, hau ho(r)koa ra (da) (E 2;03); hau no(n)goa da? (E 2;06); elux-lexkoa (egurrezkoa) (E 3;00)

(33) hau, barrukue (O 2;03); hauxe, etxeko erlojue (O 2;04); hau da treneko gizona (O 2;07)

(34) ez, hemengoa (P 3;01); nile (nire) Ma(r)ga(k) laka (dauka) t(r)ipako miña (P 3;03); lu(r)peko tlanean (trenean) (P 3;04)

Bi kasu hauen jabekuntza orokorrean aztertuz, lau haurretatik hiruk, beranduago ekoitzi dute NONGO kasua eta lau-garrenak, Bianditzek, ostera, adin berean ekoitzi ditu biak. NOREN kasua pluralean azaldu den haurrengan beranduago agertu da, arlo hau aztertu duten gehienek dioten bezala (Hernandez Pina 1979, gaztelaniazko jabekuntza aztertzerakoan). NONGO kasuan, berriz, ekoizpen pluralak haur batengan besterik ez ditugu ikusi, eta lehenengo ekoizpenekin batera azaldu da. NOREN kasua gauzatzeko izenak izan dira erabilienak. NONGO kasua egiteko, aitzitik, Egoitzek eta Bianditzek nahiago izan dituzte erakusleak. Kasu hauen emankortasunari dagokionez, ezberdintasun azpimarragarria ikusi ahal izan dugu, kontuan izanik askoz ugariagoak direla NOREN kasuari dagozkionak besteak baino. Bi kasu hauei dagozkien ez-egokitasunak gehien gertatzen diren haurrengan ere ez dira %10era iristen.

2.2.3. Leku-kasuak

Orain leku-kasuak aztertu eta azaltzen saiatuko gara.

2.2.3.1. Inesiboa edo NON kasua

(35) xiran (sillan) ttette (B 1;06); manenen (barrenen) (d)o (du) ninia (B 2;04); amonan itxen jan b(eh)ar (d)ut (B 2;04)

(36) lolo han (E 1;11); balkoien (E 2;01); t(r)enan gainen (d)o (du) (E 2;03)

(37) hori eskuan (O 2;00); zapatan min (O 2;01); buruen txapela (O 2;02)

(38) g(r)ua (gar)ajea (P 2;02); hemen ongian (haundian?) bai (P 2;03); hau atzean alolo (P 2;04)

2.2.3.2. Adlatiboa edo NORA kasua

(39) baxurera (B 1;06); xuk ho(r)rera, hau, hau (B 1;10); Ainize (e)to(r)ri la (da) amonan itxera (B 2;03)

(40) p(l)axara (E 2;01); abonan (amonan) itxera XXX hola (E 2;04); di daboa (ni banoa) Laxakala (Lesakara) (E 2;09)

(41) ale bar(r)ura! (O 2;00); gu apapara juen (O 2;01); garajera nue (O 2;05)

(42) hondaltzala (hondartzara) (P 2;07); eta joaten da ikastolala (ikastolara) (P 2;09); bai, juten da fulolera (futbolera) (P 2;10)

2.2.3.3. *Hurbiltze adlatiboa edo NORANTZ kasua*

Kasu hau bi haurren besterik ez dugu aurkitu, Oitz eta Bianditzengan hain zuzen. Berandu azaldu da gainera bi haurren hizkuntzan, eta emankortasuna oso urria da. Ekoizpen bakar batzutara mugatzen da:

(43) hauntxio ((h)a(r)untzaxe(ag)o) (B 2;05)

(44) kortaru(n)tz (O 2;05); ni banoie horrantza (O 2;07); ez, dendaruntz (O 3;04)

2.2.3.4. *Muga adlatiboa edo NORAINO kasua*

Kasu hau hiru haurren ikusi ahal izan dugu. Jabekuntza, kasu honetan ere, berandu lortu dute haurrek, eta emankortasuna ere oso urria da:

(45) pareteino bota rut (dut) (B 2;11); b(e)itu ni(k) no(ra)ino bo(ta)txen duan (B 2;11)

(46) zeruraino (O 2;09); honaino ailegatzen dana (O 2;11)

(47) bai, itxasolaino (P 2;07); olalano (horreraino) (P 3;00)

2.2.3.5. *Ablatiboa edo NONDIK kasua*

(48) ho(r)ti(k) ken(d)u, ho(r)tikan, eh (B 1;09); ninia xorotikan (xulotikan) jona hemen (B 1;11); eroriko da goiatikan (B 2;06)

(49) k(l)aro han(d)ik (E 2;02); xal(d)ik ha(r)txen do bal(d)etik kolakau (E 2;09); erori ingo la (da) ganetik (E 2;11)

(50) ba ordun, ni bakar(r)i(k) bajatu eskilarati (O 2;01); ni zulo-zulotik (O 2;04); ta o(ra)in trena alde batetik bestera pasa(t)uko da (O 2;10)

(51) hemen dato (dago) p(r)oblema (P 2;04); ez, ni hemetik (hemendik) (P 2;05); kendu ho(r)tik (P 2;09)

Leku-kasuen jabekuntza bilakabidea orokorrean hartuz, lehenik NON kasuaz jabetzen direla haur guztiak esan dezakegu. Kasu honekin batera bi haurrek NORA kasua ere ekoizten dute (Oitz-Bianditz). Bi kasu hauen ondoren azaltzen dena, NONDIK kasua da. NORANTZ eta NORAINO kasuak dira azken azaltzen direnak lau haurren corpusetan. Kasu hauek, pluralean azaltzen direnean, ia haur eta kasu guztietan beranduago agertzen dira. Emankortasunari dagokionez, dudarik gabe, NON kasua da haur guztiek gehien ekoizten dutena, ondoren NORA kasua legoke, gero NONDIK kasua. NON eta NONDIK kasuetan, mugagabe batzuk ikusi ahal izan ditugu eta NORA kasuan, berriz, mugagabeaz gain (Barreña 1994, Elozegi 1996), bizidunei dagozkien atzizki batzuk ere bai (Barreña 1994, Elozegi 1996, Zubiri 1997). Kasu hauek gauzatzeko orduan haurrek erabiltzen dituzten kategoriei dagokionez, NORA kasuan izenak dira erabilienak. NONDIK kasuan, berriz, leku-erakusleak. NON kasuarekin

Peruk izenak aukeratzen ditu; Egoitzek eta Bianditzek, ordea, erakusleak. Ez-egokitasun batzuk ikusi ditugu, baina oso gutxi dira, %5era ere ez baitira heltzen.

2.2.4. *Gainontzeko kasuak*

2.2.4.1. *Soziatiboa edo NOREKIN/NOGAZ kasua*

(52) ipuñakin (B 1;10); honekin punpa in-XXX (B 2;01); ho(r)txe mantel polittakin (B 2;06)

(53) pala pupua urakin (E 2;02); golikin ta ul(d)iñakin (E 2;08); Egoitzek kolore axkokin ta (E 2;09)

Kasu honek dituen bi atzizkiak azaltzen dira Oitz haurren ekoizpenetan, haur honek Bizkaiko ekialdeko hizkuntzaren eragina baitu (Barreña, 1994):

(54) ni Arantzakin (O 2;00); Arantzagaz (O 2;00); atxuraz han jo (O 2;01); atxurrekin danba - danba (O 2;01)

Peruk, bestalde, kasu hau kidetasuna eta instrumental-tasuna adierazteko erabiltzen du (Elosegi, 1996):

(55) pilota(re)kin bai (P 2;09); jola(s)tuko gogu (dugu) honekin, bale? (P 2;10); nahi lut (dut) Itxilekin (Itziarrekin) (P 2;11)

Pertsona edo gauzen arteko harremanak adierazten dituzten kasuen artean, NOREKIN kasua da lehen azaltzen dena hiru haurren. Bestalde, kasu hau da, dudarik gabe, multzo honetan emankorra. Haurrek gehien erabiltzen duten kategoria, izena da. Ez-egokitasun gutxi egiten dituzte, gehienera %5 besterik ez.

2.2.4.2. *Instrumentala edo ZEREZ kasua*

Kasu hau bi haurrek bakarrik ekoizten dute, arakaturiko corpusaren arabera:

(56) ta hau zergatik da(g)u negarrez? (O 2;08); hankaz gora (O 2;09); ze bestelan zegaz eingo dau (du) hegaz? (O 2;11)

(57) kotxez (P 3;02)

Peru haurren emanaldietan ekoizpen bat besterik ez da ageri corpus osoaren zehar. Honek, noski, zerikusi estua du NOREKIN kasua azaldu dugunean adierazitakoarekin. Barreña (1994), bestalde, kasu hau azkenetarikoa izateak, mugagabetasunarekin zerikusia izan dezakeela dio.

2.2.4.3. *Motibatiboa edo ZERGATIK kasua*

Kasu honen agerpena haur batengan bakarrik ematen da, Oitzengan hain zuzen. Oso gutxitan erabiltzen du haurrek eta guztietan "horregatik" izanordanari erantsirik. Hori dela eta, jabekuntza zalantzarria dela iruditzen zaigu:

(58) hoaitik (horregatik) (O 2;03)

2.2.4.4. *Destinatiboa edo NORENTZAT kasua*

(59) (B)ian(d)itzako (B 1;10); neretzako (B 2;00); pa(n)piñant(z)at ez (B 2;04)

(60) Ibai(n)txat (E 2;03); aba(n)tzako (amantzako) (E 2;04); neletxako loxa (roxa) ta Ibai(n)txat pixko(t) holia (horia) (E 2;10)

(61) hori zaila da zuretzat (O 2;06); ipini niretzat! (O 2;07); eta gero zure kamioiarentzat e(g)ingo dogu (O 3;03)

Peru haurrak, **-entzat** atzizkiaren beste aldaera bat ere erabiltzen du, **-tako** atzizkia:

(62) Piueentzat (Perurentzat) (P 2;05); baina oso zaila da zuretako (P 2;09); niretzako da santxeski haundi haundi bat (P 3;02)

Kasu hau ez da askotan azaltzen lau haurren ekoizpenean. Ez dugu, ordea, ez-egokitasun bakar bat ere aurkitu, hau da, kasu honen beharra zegoen guztietan erabili dute eta ez dute inoiz gaizki erabili. Erabilitako kategoriei dagokionez, Peruk izenordainak erabili ditu gehien. Egoitzek eta Bianditzek, berriz, izenak aukeratu dituzte.



Arrasateko Umezaintza

KASUA	BIANDITZ	EGOITZ	OITZ	PERU
Absolutiboa - NOR	1;06	1;11	2;00	2;02
Partitiboa	2;04	2;10	2;05	3;03
Ergatiboa - NORK	1;06	2;02	2;00	2;05
Datiboa - NORI	1;09	2;03	2;00	2;07
Jabego Genitiboa - NOREN	1;06	2;01	2;00	2;03
Leku Genitiboa - NONGO	1;06	2;03	2;03	3;01
Inesiboa - NON	1;06	1;11	2;00	2;02
Adlatiboa -NORA	1;06	2;01	2;00	2;07
Hurbiltze adlatiboa -NORANTZ	2;05	-	2;05	-
Muga adlatiboa -NORAINO	2;11	-	2;09	2;07
Ablatiboa - NONDIK	1;09	2;02	2;01	2;04
Soziatiboa - NOREKIN/NOGAZ	1;10	2;02	2;00	2;09
Instrumentala -ZEREZ	-	-	2;00	3;02
Motibatiboa - ZERGATIK	-	-	2;03	-
Destinatiboa - NORENTZAT	1;10	2;03	2;06	2;05

3. ONDORIOAK

Kasuen jabekuntza banan-banan lau haurren nola ematen den amaitu ondoren, ondorio orokor hauetara iritsi gara:

1.- Lanean zehar aipatu ez badugu ere, kasu hauen lehen ekoizpenak azaldu aurretik, haur guztietan ikusi ahal izan dugu kasurik gabeko aro bat, aro aurre-morfologikoa deritzana hain zuzen. Ondoren, kasuak azaltzen hasten dira, ekoizpen zuzenak eta ez-egokitasunak ikusiz. Adina aurrera doan heinean, ordea, ez-egokitasunak gero eta gutxiago azaltzen dira, eta ekoizpen egokiak nagusitzen dira. Prozesu bera ikusi ahal izan dugu lau haurren, bakoitzaren bilakabidean aurkitu ditugun ezberdintasunen gainera.

2.- Absolutibo kasuak betetzen dituen bi funtzioak, hau da, subjektua eta objektuaren bereizketa goiztiarra lau haurren ikusi dugu. Gauza bera esan dezakegu bi subjektu ezberdinen bereizketaz: absolutiboa eta ergatiboa. Datiboari dagokionez, gehienetan beste bi kasuen ondoren azaltzen dela ikusi dugu, emankortasuna ere dexente urriagoa erakutsiz. Partitiboa berriz, azkenak da azaltzen aztertutako corpusetan. Haur gehienetan, bestalde, kasuaren gauzatzea lehenago ematen da Izen-sintagemetan aditzetan baino, hau da, kasu marka lehenago azaltzen da aditzarekiko komunztadura baino.

3.- Aditzarekin komunztadurarik gordetzen ez duten kasuei dagokionez, hiru urte inguruan haur guztiak jadanik ekoiztu dituzte NON, NORA, NONDIK, NOREKIN eta NORENTZAT kasuak, hau da, euskarak dituen kasuetatik gehienak eta ohikoenak. Kasu eta haur batzuen gainera, mugagabea, hurbila eta bizidunei dagozkien atzizkiak ere ikusi ahal izan ditugu. Honek guztiak erakusten digu, jakekuntzaren hasiera haur guztiengan adin berean hasten ez bada ere, bilakabidea beretsua dela, eta hiru urte inguruan, haur guztiak gai izan direla euskararen kasu sistemaz jabetzeko.

4.- Aipagarria iruditzen zaigu haur baten bilakabide berezia, Peru haurren hain zuzen. Berezia diogu, besteak beste, alde batetik, bera delako jabekuntza bilakabidean berandu dabilena. Bestalde, bera delako bakarrik Ergatibo eta Datiboari dagokion aditzarekiko komunztadura lehenago adierazten duena, kasu hauei dagokion kasu marka baino.



Arrasateko Umezaintza

Nor eta Nor¹ kasuen jabeakuntza

Andoni Barreña

Juanjo Zubiri

Salamancako Unibertsitatea. Salamanca
Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruña

1. AZTERTURIKO HIZKUNTZ ARLOA

Jakina da eskolaren bidez euskalduntzen diren hainbat haur erdaldunek zailtasunak dituztela NOR¹ kasuaren edo ergatiboaren -k marka egoki gauzatzean. Haurrek, zenbaitean, -k marka eman gabe uzten dute -Ø markarekin, itxurazko NOR kasuan edo absolutiboan subjektuak gauzatuz (1). Besteetan, aldiz, NOR kasuaren edo absolutiboaren -Ø marka eraman behar duten aditz iragangaitzen sintagma² ergatiboaren -k markarekin adierazten dituzte (2).

(1) *ni jostailua nahi dut (nik jostailua nahi dut)

(2) *nik etorri naiz (ni etorri naiz)

Guk, lantxo honetan haur euskaldunek aditz iragangaitzen eta iragankorren subjektuak ezberdin markatzen nola ikasten duten azaldu nahi dugu. Horretarako, gogoan eduki behar dugu aditzen arabera subjektuak markatzeko bi era ezberdin ditugula euskaraz: NOR kasuaren edo absolutiboaren bidez Ø markarekin (3) eta NOR¹ kasuaren edo ergatiboaren bidez -k markarekin (4).

(3) *gizon-a-Ø* etorri da
gizon-det-abs¹
subjektua

(4) *gizon-a-k* seme-a-Ø ekarri du
gizon-det-erg seme-det-abs
subjektua objektua

Aipaturiko aditz eta jokaera mota hauetaz gain, kontutan izan beharko dugu, baita ere, berez iragangaitz diren hainbat aditzekin subjektuak aditz iragankorra balute bezala markatzen direla. Honelakoei aditz iragangaitz ezergatiboak deitzen zaie. Mota honetakoak dira jokatu, jolastu, dimititu, irakin eta hegaz egin bezalakoak. Edo bestela esan, aditz hauek objekturik ez duten arren, subjektua ergatiboaren bidez gauzatzen dute (5).

(5) *gizon-a-k* jolastu du
gizon-det-erg
subjektua

Bestalde, hemen kontu hau ez badugu ikusiko ere, ez da ahaztu behar subjektuek aditzarekiko komunztadura dutela, eta euskaraz subjektu iragankorrak, bai eta iragankortzat hartzen direnak ere, hitz amaieran jartzen diren morfemen bidez markatzen direla aditzean, orainaldiko adizkietan behintzat (6). Subjektu iragangaitzen seinaleak, ordea, adizkiaren hasieran jartzen diren morfemen bidez adierazten ditugu (7).

(6) *ni-k* zu-Ø ekarri z-aitu-t
ni-erg zu-abs 2sO - 1sS
subjektua objektua

(7) *ni-Ø* etorri *n-aiz*
ni-abs 1sS
subjektua

2. HAURREK NOLA MARKATZEN DITUZTEN SUBJEKTUAK

2.1. Aditz iragangaitzen subjektuak

Aditz iragangaitzen subjektuak euskarazko haur hauen ekoizpenetan, ohi bezala, absolutiboaren kasuarekin jantzirik agertzen dira. Horrelaxe ikusi dute Barreñak (1995) Oitz elebakarraren eta Mikel eta Peru elebidunen ekoizpenak arakatzean, Barreñak & Almgrenak (1996) Mikel elebidunaren eta Oitz elebakarrarenak aztertzean, Ezeizabarrenak (1996) eta Ezeizabarrenak & Larrañagak (1996) Mikel elebidunarenak ikertzean, Elosegik (1996) Peru elebidunarenak arakatzean, eta Zubirik (1997) Egoitz eta Bianditz elebakarrenak aztertzean. Autore hauen datuen arabera bilduriko ia emanaldi gehienetan aditz iragangaitzen subjektuak absolutiboaren markarekin ekoizten dituzte, hots, -Ø markarekin (8-12).

¹ Erabiliko ditugun laburdurak honako hauek dira: det(erminatzailea), abs(olutiboa), erg(atiboa), s(ingularra), p(lurala), S(ubjetua), eta O(bjetua)

(8) *bulua* non (d)a? (E 2;01), *hau xer* (d)a? (E 2;01), *l(eh)oi*a eloli *l(eh)oi*a (E 2;02), *ninia* ra (E 2;02) *motoa* exin (d)a tatu(sartu) (E 2;03)

(9) hemen da *kut(x)area* (B 1;07), *hau* kotxea da (B 1;07), non (d)a *potoia*? (B 1;08), *b(al)oi*a ez t(ag)o (B 1;08), *biziketa* han (d)a (B 1;11)

(10) *azala* izan da (O 2;00), *argie* izetu da (O 2;01), *gu* lehen han ibili (O 2;02), ni naz (O 2;03), *hau* izan da (O 2;03), *hori* da zurie (O 2;04)

(11) han dau *kotxie* (M 1;09), hemen dau petetie (M 1;10), *hau* apurtu da (M 1;11), *ni* sustau ei na (M 2;01), *papela* nun da? (M 2;03), *Valen* han dau (M 2;04)

(12) hemen e(z)to kotxea (P 2;02), *hau* da tutua (P 2;03), *tatoga* non dago? (P 2;05), *hau* amaxiren etxea da (P 2;07), ni naiz okina (P 2;10), hor lago bete txakula (P 2;10)

Orain arte erakutsitako adibideetan perpausak osorik edo ia osorik ikus ditzakegun arren, sarritan ez da horrela gertatzen eta haurrek aditz gabeko esaldiak edo sintagma hutsak ekoizten dituzte. Batzuetan, halakoetan ere nabarmena izaten da zenbait subjektu NOR kasuan agertzea (13-17).

(13) *Ibai* haxele (E 2;02), *a(s)toa* polita (E 2;02), *ni* heben (E 2;03), hol *be(s)te* bat (E 2;03), *ni* ko(n)te(n)tu (E 2;04), *hau* haun(d)i haun(d)ia (E 2;04)

(14) *Aritzi* [Ainize] tturi(etorri), ama (B 1;06), hemen *(be)la(r)ria* (B 1;06), *hau* golia (B 1;06), *holli* pipia (B 1;07), *hau* xuria (B 1;10), *jogur txiki* bat (B 2;04)

(15) *ni* bai (O 2;00), *hori* gero (O 2;00), *zu* zure botekin (O 2;01), *hori* ume txikia (O 2;02), *hau* barrukoa (O 2;03), *gu eta biziketa* (O 2;04)

(16) *katutxue* (M 1;10), oin *hau* (M 1;11), *zu* hemendi (M 2;00), *hau* ez (M 2;00), *hori* Itsaso (M 2;01), *kotxe* bat (M 2;03), *beste kotxie?* (M 2;04)

(17) *azal* *hau* gorria (P 2;02), *beste autoa* (P 2;02), *afofonua* (P 2;04), *etxe* bat (P 2;04), *nire tutua* (P 2;05), *txatxe handia* (P 2;07)

Baina haurrek beti egoki darabilte NOR kasua edo absolutiboa? Aditz iragangaitzei dagozkien subjektu guztiak kasu honen bidez eta bakarrik kasu honen bidez jantzen al dituzte? Erantzuna ezezkoa da, batzuetan NORK kasuaren edo ergatiboaren markarekin ematen baitituzte. Hala ere, ez-egokitasun hau gutxitan gertatzen dela aitortu behar dugu.

Aditzik gabeko esaldietan haurrek nola adierazi nahi izan duten jakitea oso zaila denez, hau da, aditz iragangaitz edo

aditz iragankor baten subjektua den ziur esaterik ez dagoenez, aintzat hartu dugun corpusean ez-egokitasunak erakustean aditzen batez osoturiko esaldietara mugatu gara.

Esate baterako, Mikel elebidunaren 3,00 arteko emanaldiak begiraturik, subjektua gauzatutako 300 esaldi iragangaitz inguru bildu ditugu, eta bat bakarra ikusi dugu, absolutiboa ez dagokion kasu marka batekin. Hain zuzen ere, adibide hau -berandu samarrekoa gainera- ergatiboaren kasu markarekin ekoitzi du Mikelek (18).

(18) **nik* ibili naz (M 3;00)

Oitz elebakarraren 3,00 arteko ekoizpenean ere jaso ditugu, aditz iragangaitzen artean, ergatiboaren markarekin gauzaturiko bi subjektu (19), guztira 400 baino gehiago egin dituen arren.

(19) **nik* zaratakin bilddurtu (O 2;05), **eta nik* etorri eta etorri (O 2;08)

Egoitz elebakarraren emanaldietan tankera honetako bi adibide bildu ditugu, 305 direnean guztiz zuzenak (20).

(20) *Egoitzek* eta Unai (E 2;03), *kua-kuak* (E 2;11)

Bianditz nexka elebakarrak ere erabili egin du ergatiboaren marka noizean behin aditz iragangaitz baten subjektu markatzeko. 294 esaldietatik honako bi adibide hauek bildu ditugu (21).

(21) ez(t)a *Xolek* (B 1;09), *Jon Na(r)ba(r)tek*, e, e, etzen (e)to(r)ri (B 2;11)

Peru elebidunaren emanaldietan Elosegik (1996) ere aurkitu du antzekorik (22), baina haur honen ekoizpenetan ugariagoak dira halako ez-egokitasunak. Beste haurrengan ez-egokitasunak % Iera ere inoiz heltzen ez diren arren, Peruren corpusean askoz ugariagoak dira.

(22) **nik* oso handia naiz eta *zuk* oso txikia zara eta *nik* montatzen naiz (P 2;09), **nor* zara *zuk?* (P 2;10), **nik* e naiz (P 3;00), **holako* baten *Iñigok* etorri zen korrika (P 3;06)

Nolanahi ere, azpimarratu nahi dugu honelako ez-egokitasunak urriak izateaz gain, berauei laguntzen dien aditz laguntzaileak arauarekin bat datozenak direla, aditz iragangaitzak alegia.

2.2. Aditz iragankorren subjektuak

Aditz iragankorren subjektuek euskaraz beharrezko dute NORK kasuaren edo ergatiboaren -*k* marka izatea.

Haurren hizkuntzaren garapenean zehar, aditz iragankorren subjektuen itxurari begiratzen badiogu, ordea, -*k* markarekin gauzatuak edota inolako markarik gabe eginikoak ikus ditzakegu. Alabaina, kontua ez da dirudien bezain nahasia, guk arakatu ahal izan ditugun haurren ekoizpenetan bederen. Haurrek, gure ustez, garapen prozesu berezia eta jakina jarrai-

tzen dute beharrezko den *-k* markaren erabilera egokia erdie-tsi arte. Datuak argiagoak egitearren hiru arotan banatu dugu ikasprozesu hau.

1. Lehen aro batean hurrek ez dute NORK kasuaren edo ergatiboaren *-k* marka erabiltzen sintagmetan aditz iragankorrekina batera gauzatu arren (23-27). Garai honetan, ergatiboaren marka eta beste kasuen markak ere ez dituzte erabiltzen hurrek, nolabait esanik, aldi aurremorfoloikoa da hau eta. Areago, haur batzuek hasiera honetan hainbat ezaugarri morfoloikoa erabiltzen hasita ere, ez dute ergatiboaren *-k* morfema hau beranduxeago arte ematen.

(23) *mu(k)* ai, ai (E 1;07), *amatxi(k)* mu (E 1;10),
Mintzaideak: *nik, nik, nik, esan zuk!* Haurrak: *ni, ni, ni* (bere burua seinalatuz) (E 1;11)

(24) *aitita(k)* aputu (O 1;06), *Jugi(k)* atara (O 1;07),
Jugi(k) aputu (O 1;07), *Andoni(k)* aputu (O 1;11)

(25) *ni(k)* deitu holan (M 1;10), *Andoni(k)* jan dau(du)
(M 2;00), badeko *ni(k)* (M 2;00), *Ana(k)* nahi
dau(du) (M 2;01),

(26) *aita(k)* (P 1;11), *ni(k)* (a)putu (P 2;01), *ni(k)* igela
(P 2;02), hau *Piu(k)* (P 2;03), *Pe(r)u(k)* azin du
(P 2;04)

Ergatiboren *-k* markarik gabeko lehen aro hau Bianditzen-gan izan ezik beste lau hurrengan ikusi ahal izan dugu. Egoitzen corpusean 2,02 adina izan arte luzatzen da, Oitzenean 2,00 adina izan arte, Mikelenean 2,02 adinara arte eta Perurenean 2,05era arte.

Bianditz nextkaren kasuan ez dugu ergatiboaren markarik gabeko arorik atzeman, 1,06 adinetik aurrera, grabaketak hasi zirenetik alegia, *-k* marka ikus baitezakegu. Izan ere, Bianditz oso goiz hasi da morfologia garatzen, beste guztiak baino goizago, eta ez dugu bere morfologiari gabeko aldia harrapatu ahal izan grabaketan bidez.

Alabaina, gure ustez, hurrengan orokor samarra izan daiteke morfologiaren garapena hasi orduko edo hasieran bertan ergatiboaren *-k* marka ez ekoiztea. Nolanahi ere, guk ez dugu uste aditz iragankorra daramaten subjektu hauek NOR kasuaren edo absolutiboaren \emptyset markarekin eman dituztenik, inolako marka barik gauzatu dituztela baino. Gogoan izan hurrek ez dutela morfologiari erabiltzen aro honetan.

2. Bigarren aroan umeak ergatiboaren *-k* marka erabiltzen hasten dira, baina ez dute beharrezko diren aditz iragankorrei dagozkien sintagma subjektu guztiakin erabiltzen. Erabilera emankorra da, hitz eta kategoria ezberdinekin darabiltelako (27-31), baina ez da guztiz zuzena, beti ez baitarabilte (32-36).

(27) *attonak* (E 2;01), *talik(zaldik)* hihhi (E 2;02),
hola *Unaik* (E 2;02), *Ibaiek ha(r)tu do* (E 2;03),
eta (i)txi in (d)o *Egoitzek* (E 2;03), bota *l(eh)oiak*
totera (traktorea) (E 2;02)

(28) *amak* (B 1;06), *Bia(nd)itzek* bota (B 1;08), *attak*
ura bota (B 1;08), lolo *Bia(nd)itzek* lolo (B 1;08),
ko(z)ka *moxo(r)rok* ko(z)ka (B 1;09)

(29) *nik* dana hartu (O 2;00), *zuk* (O 2;00), *nik* hau
nora bota? (O 2;01), eta *guk* (O 2;02), ba *zuk*
hona bota (O 2;02), honek ez (O 2;03), *nik* hil
(O 2;03)

(30) hori *zuk* (M 2;04), *nik* ez (M 2;04), *nok* aputu
dau? (M 2;04), *nik* gura (d)ot goien (M 2;05), *zuk*
hor dekozu motorrie eta *nik* kamioie (M 2;06)

(31) hau *Begok* (P 2;05), hori *Begok* (P 2;05), ez du
nahi *amak* (P 2;05), *nik* eman behar diot (P 2;05),
ta hemen jaten du Potxok (P 2;07), *zuk* ez
dakizu (P 2;09)

(32) *Egoi(t)z(ek)* (E 2;01), *xexena(k)* mu (E 2;03),
l(eh)oiak uau (E 2;03), *ninia(k)* uau (E 2;03)

(33) *Bia(nd)itz(ek)* (B 1;06), *ninia(k)* kaka hemen
(B 1;07), *Bia(nd)itz(ek)* bota (B 1;08), *hau(k)*
moxo(r)roa(k) t(r)ipan (B 1;09), *ni(k)* hemen
(d)u(t) (B 2;00)

(34) *gu(k)* hori eba(g)i, ama (O 2;00), *ni(k)* argia
ikutu (O 2;00), *ni(k)* lagundu (O 2;02), *ni(k)*
kertsia badeka(t) (O 2;02), oin *ni(k)* nun marraztu
(O 2;03)

(35) *zu(k)* nahi dozu esnie? (M 2;03), *Andoni(k)* ein
dau kotxe ba(t) (M 2;03), ein *zu(k)* (M 2;03),
zu(k) hartu beste kamioi bat (M 2;06), *Ana(k)*
emon doza(dit) (M 2;07)

(36) *Piu(k)* e(ra)bili (P 2;05), *ama(k)* hemen dauka
(2;07), *hau(honek)* zarata egiten du (P 2;07), *ni(k)*
badu(t) tatorea (P 2;09), badaki *Jon(ek)* egiten
hau (P 2;10)

Erabilerearen egokitasuna % 90era heltzen denean amaitzen dela onartzen badugu, bigarren aro honek honako iraupen hau du bost hurrengan: Egoitz 2;01-2;03; Bianditz, 1,06-2,02; Oitz 2;00 - 2;03; Mikel 2;03 - 2;07; Peru 2;05 - 2,11.

Oro har, hiruzpalau zehaztasun egin nahi ditugu bigarren aro honetaz. Bat, ez duela iraupen bera haur guztiengan, ezen batzuegan luzeagoa da besteengan baino. Bi, aroa ez dela guztiz homogenea, ezen denboran zehar ergatiboaren markaren erabilerearen maiztasuna eta kopurua handituz baitoaz. Hiru, ergatiboaren marka ez erabiltzeak ez duela esan nahi aditz iragankorren subjektuak absolutiboaren markarekin, hots, *-* (markarekin, gauzatzen dituztenik; gure ustez, lehen aroan egin izan duten bezala, marka barik ekoizten dituzte halakoak. Lau, inguru fonologikoak *-k* markaren gauzatzean eragozpenak ekartzen dizkiela. Kontu hau interesgarria denez, zehatzago azalduko dugu berehala.

3. Hirugarren aldian hurrek egokitasunez darabilte *-k* marka aditz iragankorrei dagozkien sintagma subjektuekin. Egokitasuna guretzat, lehen esan dugun legez, erabileraren zuzentasuna % 90ekoa edo haundiagoa denean da.

Bostak sartzen dira aldi honetan 3 urte bete aurretik, nahiz adin kontutan banakoen ezberdintasunak ere badiren. Hona hemen aro honen hasieraren adina hurrez haur: Egoitz 2,04, Bianditz 2,03, Oitz 2,04, Mikel 2,08, Peru 2,10.

Edonola ere, arestian aitatu bezala, inguru fonologikoak garrantzia handia du ergatiboaren *-k* markaren erabileran. Elosegik (1996) Peru elebidunaren aditz iragankorren subjektuen markak aztertzean bi aldagai izan ditu kontutan: batetik, kategoria lexikoak *-izenordainak*, *izen bereziak*, *izen arruntak*, *erakusleak*, eta *abar-*, *bestetik*, *inguru fonologikoak*, *hots*, *-k* markaren hurrengo hitzaren baldintzaketa *-marka esaldiaren amaieran den*, *kontsonante baten aurrean den edo bokal baten aurrean den-*. Kategoria lexikoen arabera ez du datu esanahitsurik aurkitu, egite edo ez-egiteari dagokiolarik behinik behin.

Baina ergatiboaren marka eraman behar duen sintagmaren inguramendu fonologikoa, ostera, garrantzitsua dela ikusi du. Kontsonante aurreko *-k* markaren gauzatzea zailagoa egiten zaiola dirudi. Peruk 2,11tik aurrera 127 aldiz erabili behar-ko zukeen marka eta 17 alditan ez du ekoizten. Ez-erabilera, beraz, % 13 da. Baina kontutan badugu 127 adibide horietatik 27tan kontsonante aurrean dela, eta esaldi amaierako edo bokal baten aurreko ekoizpenari begiratzen badiogu, hona hemen datuok: 100 adibideetatik 98tan marka ekoizten du, % 98 alditan alegia.

Ezeizabarrenak eta Larrañagak (1996) ere antzeko zerbait ikusi dute Mikelen elebidunaren ekoizpenean. Ikertzaile hauek inguru guztiak aztertu zituzten 3,00 adinara arte eta ondoko datu orokorrak eskaintzen dizkigute: Mikelek ergatiboaren marka % 90 alditan gauzatzen du bokal baten aurrean, % 79 esaldiaren amaieran eta % 16 kontsonante baten aurrean.

Zubirik (1997) ere antzeko jokabidea ikusi du Egoitz eta Bianditz elebakarren ekoizpenak begiratu ondoren. Esaterako, Bianditz nexkaren 600 emanaldietatik ia 100etan kontsonante aurretik dagoen ergatiboaren *-k* marka falta da, baina hala ere ontzat hartzen ditu; txartzat ematen ditu, ordea, bokal aurretik ahoskatu ez diren 16 forma (ekoizpen guztien %2,7a gutxi gorabehera).

Badirudi, beraz, inguru fonologikoak zerikusi handia duela *-k* markaren gauzatzean. Edonola ere, argi dago 3,00 adina bete aurretik haur guztiek egoki menderatu dutela marka honen erabilera eta egoki markatzen dituztela aditz iragankorrei dagozkien sintagma subjektuak.

2.3. Aditz iragangaitz ezergatiboaren subjektuak

Badira euskaraz zenbait aditz berez iragangaitz izan arren, hots, objekturik gabeak, subjektuarentzat ergatiboaren *-k* marka eskatzen dutenak. Subjektua ergatiboarekin markatzeaz gainera, aditzarekiko komunztadura ere adizki iragankorrekin egiten dute, nor-(nori)-nork motetakoak hain zuzen. Horrelakoak dira, esaterako, jolastu, jokatu, irau eta igerian egin aditzak gaur egungo hegoaldeko hizkeran (37-38).

(37) umeak ikastolan asko jolasten du

(38) Elkorok ondo jokatu du

Aditzen iragankor/iragangaitz tasun honek subjektuaren forma baldintzatzen duenentz, guk, hurrek halako aditzen subjektuak nola markatzen dituzten arakatu dugu. Adibide



gutxi ediren ditugun arren, ugariak dira jolastu aditzarekin bil-
durikoak. Salbuespenen bat baldin bada ere, ia guztietan *-k*
marka eta nor-nork motako adizki laguntzailea darabiltzate
haurrek hasiera hasieratik, helduek egiten dugun bezalaxe
(39-41). Edonola ere, ez dugu haur guztiengan halakorik bil-
du.

(39) *xa(l)to (eg)itten do(du) honek (E. 2;07)*

(40) *Mikelek ez dau(du) jolasten (O 2;06), zuk
jolasten dozu (O 2;08)*

(41) *nik jolastuko dot (M 2;05), Lagunek eta nik negar
egin dogu (M 3;00)*

Hiru urtetik aurrera, aitzitik, askoz ugariagoak dira hala-
koak (42). Bizkaiera ikasten duten haurrek jokabide bikoitza
erakusten dute *irten da/urten dau(du) eta igon da/igon
dau(du)* aditzekin (43), bietariko formak entzuten dituzte eta.

(42) *ez dau(du) balio (M 3;01), haginke egiten
dabe(dute) (M 3;04), burrukan ein daben(zuten)
eta (M 3;05), ein bi(behar) dau(du) hegaz
(O 3;07), ba berriro sokatiran egingo dogu
(O 3;08)*

(43) *gero mahatsak urtetan eban(zuen) (O 3;01),
ointxe urtengo dau(du) mahatsak (O 3;01), ba oin
urtetan da (O 3;01), oin urtengo dau(du) (M 3;04),
keie urtengo da (M 3;06)*

2.4. Ergatiboaren jabekuntza eta autozuzenketa

Gure ustez bada beste fenomeno garrantzitsu bat aditz ira-
gangaitzen eta iragankorren subjektuen gauzatzea beregana-
tzean. Zenbaitetan haurrek aditz iragangaitzei subjektu erga-
tiboei dagokien marka eranstea, edo alderantziz, aditz ira-
gankorrei subjektu absolutiboa ipintzerakoan, eginiko akatsaz
konturatzen dira eta beroni irtenbide egokia ematen ahalegin-
tzen dira. Hau guztiau, noski, ez da era kontzientean gerta-
tzen, baina edonola ere, haurren zuzenketa ahalmena nabar-
men ikus daiteke (44-48).

(44) *hori(-k) ez du, horrek ez du eruaten (O 2;04)*

(45) *hau(-k) "ka-ka-ka" (eg)itten du honek (E 2;04)*

(46) *ba nik ni etorri naz zuregana (O 2;07)*

(47) *ze Jontxuk Jontxu ez zan konturatu (O 2;10)*

(48) *ni nik holakue badeket (O 3;00)*

3. ONDORIOAK

Haurrak aditz iragangaitzen eta aditz iragankorren subjek-
tuak ezberdin markatu behar dituztela konturatzen dira, eta
oro har horrela egiten dute.

Aditz iragankorren eta iragangaitz ezergatiboen subjek-
tuak beharrezkoa duten *-k* markaren jabekuntza garapena
antzeko samarra da haur guztiengan, eta beronen erabilera
egokia lortzeko, ezaugarri morfologikoak erabiltzen hasten




Arresateko Umezaintza

Aditz-jokoaren jabeakuntza

Maria Jose Ezeizabarrena

*Filologia, Geografia eta Historia Fakultatea
E.H.U*

Vitoria-Gasteiz



Arrasateko Umezaintza

1. AZTERTURIKO HIZKUNTZA ARLOA: ADITZAREN MORFOLOGIA

Euskal aditz jokatuan esanahidun zati txiki anitz aurki daitezke, pertsona (bat edo gehiago), aldia, aspektua eta modua adierazten dutenak. Ondorengo adibideetako aditz jokatuak, lehenengo pertsona marka *n-*, *nen-*, edo *nin-*, aditz erroa, eta lehenaldiko *-(e)n* atzizkiak osatuta daude, eta batzuetan (1c, d), *-i* aspektu bukatuaren marka ere ikus daiteke partizipioan.

- | | | | |
|--------|-------------------|----|--------------------|
| (1) a. | nen-tor-en | b. | etsi n-u-en |
| c. | etorr-i nin-tze-n | d. | ikus-i nin-du-Ø-en |

Hala ere, lan honetan komunztadura markei buruz baka-rik arituko gara.

KOMUNZTADURA ANIZKOITZA EUSKARAZ

Subjektua (S) NOR zein NORK kasuduna izan daitekeen perpausoko aditzak hari egokitzen zaion jokoa erakutsi behar du: NOR aditzak Subjektuarekin bakarrik adierazten du komunztadura (2) eta NOR-NORK Subjektuarekiko hutsa (1b) edo Subjektu eta Objektu Zuzenarekiko (OZ) (3).

- | | | | |
|-----|-------------|-------|-------------------------|
| (2) | etorri naiz | NOR | (NOR=S1s) |
| (3) | ikusi ditut | NOR-K | (NOR=OZ3pl - NORK =S1s) |

Baina euskarazko aditzak Subjektuarekin eta Objektu Zuzenarekin ez ezik, Zehar Objektuarekin (ZO) ere adieraz dezake komunztadura: NOR-NORK (4), NOR-NORI (5) eta NOR-NORI-NORK (6) izenez ezagutzen ditugun paradigmen bidez, alegia.

- | | | | |
|-----|---------------|---------|---------------------------------------|
| (4) | eraman nauzu | NOR-K | (NOR=OZ1s - NORK= S2s) |
| (5) | joan natzaizu | NOR-I | (NOR=S1s - NORI = ZO2s) |
| (6) | eman diot | NOR-I-K | (NOR=OZ3s - NORI= ZO3s
- NORK=S1s) |

Aipatutako marka hauek guztiak aditz sistema osoan ageri dira, komunztadura mota bera erakusten duten aditz erro guztiei dagozkie eta. Adz, NOR-K erakoak dira *eraman*, *eduki*, *ekarri*, etab. Hala ere, ez da maiz erraza izaten, euskara eskolan ikasi edo irakatsi behar duenarentzat, euskal aditzen aldaeren banaketa azaltzen, eta aditzaren morfologia zatika azaldu nahiz geroz, arazo mordoskarekin topatzen dira ikasle-irakasleak.



1. Taula. Argumentuen eta kasuen araberako pertsona marken kokaguneak aditz jokoan

	Argumentuak	S, OZ	S, ZO
	Kasuak	NOR, NORK	NORK, NORI
		MARKAK	
<i>Pertsonak</i>		<i>Aurrizkiak</i>	<i>Ez-aurrizkiak</i>
1s		n-	-t, -da-
2s		z-	-zu
2s (hika)		h-	-k, -a/-n(a-)
3s		d-, z-, Ø-, l-, b-	-Ø, -o, -a
1pl		g-	-gu
2pl		z..te-	-zue
3pl		d..z, Ø..e ^{vii} , -te	-e

2. EUSKAL ADITZA IKAS-IRAKASTEKO ZENBAIT ZAILTASUN

Euskal aditzaren jabekuntza gramatiketan ageri diren deskribapenen araberakoa izanez geroz, badira zenbait arazo hiztun gaiak menderatu behar dituenak.

Lehen arazoa: Hiru pertsoneri berarizko markak badagozkie ere, pertsona bati EZ dagokio marka bakarra. Arazorik haundiena hirugarren pertsona-markak zein diren erabakitzean datza^{viii}: (?d-, ?z-, ?Ø-, ?l-, ?b-).

Bigarren arazoa: Pertsona markak ALDATU egiten dira singularretik pluralera. Pluraltasuna ez da singularreko formari erantzen zaion plural marka hutsa. Lehen pertsonari, esa-

^{vii} Bigarren eta hirugarren pertsona pluralekoen markak etenda ageri dira askotan: lehenengo osagaia pertsonari egoki ohi zaio, eta bigarrena numeroari. Aldaera asko daude, baina haurren datuetan aurkitutakoak bakarrik zerrendatuko ditugu hemen.

^{viii} Ikus Euskaltzaindia (1987), OyharÁabal (1989), Trask (1981).

te baterako, singularrean *n-* eta pluralean *g-* marka dagokio (7a); besteetan, aldiz, plural markak bereizten ditu pertsona beraren bi numeroetarako formak (7b).

- (7) a. *n-ator / g-ato(r)-z.*
 b. *z-ato-z / z-ato(r)-z- te*

Hirugarren arazoa: argumentu bakoitzaren markak EZ dauka aditzaren morfologian leku jakin bakarra. Subjektuarekiko komunztadura markak batzutan aurrizki moduan ager daitezke (8a) edo atzizki legez (8b), eta gauza bera zehar objektuekin ere (10). Objektu zuzenak batzutan aurrean (9a), besteetan erdian (9b), besteetan atzean (9c) agertzen dira (1. Taula).

- (8) a. *n-entorren, n-ekarren, n-atzaizu*
 b. *dauka-t, dizkizu-t*
 (9) a. *n-au-zu* b. *di-zki-zu-t* c. *do-da-z*
 (10) a. *zai-t* b. *di-da-zue*

Laugarren arazoa: kasu bakoitzak ere EZ dauka aditzaren morfologian kokaleku bakarra: NOR kasuari dagozkion markak batzuetan aurrizkiak (11a), besteetan artizkiak (11b), eta inoiz gauzatu gabe ere gera daitezke aditz jokoan (11c). NORrekiko komunztadura markak batzuetan aurrizkiak dira (12a), besteetan atzizkiak (12b), eta NORI markak batzuetan bukaeran ager daitezke (13a), besteetan erdian (13b).

- (11) a. *n-ator, n-aukazu* b. *doda-z* c. *neukan*
 (12) a. *n-eukan* b. *dauka-t*
 (13) a. *zai-t* b. *di-da-zu*

Bosgarren arazoa: Hizkien hurrenkera aldatu egiten da aldiaren arabera ere.

Hala bada, ikus dezagun ondorengo taulan euskal aditz-jokatuen sisteman aurki daitezkeen komunztadura konbinaketak, eta konbinaketa bakoitzari dagozkion hizki-hurrenkerrak.

Badira hizkien hurrenkera bera gordetzen ez dutenak orainaldian eta iraganean: NOR-Kb eta NOR-I-K. Bi paradigma hauek Objektu Zuzena (NOR) hirugarren pertsona izatearena dute ezaugarri, askotan (singularrean) soinu-edukirik gabeko (marka dagokiona, alegia. Hauetan subjektu marka orainaldian atzizkia izanagatik ere, lehenaldian aurrizki bihurtzen da (14).

- (14) NOR-NORKb edo S-OZb *duf* *nuen*
 NOR-NORI-NORK edo S-OZ-ZO *dizuf* *nizun*

Baina leku aldaketa ez da gainerako komunztaduretan gertatzen, alegia Objektu Zuzena lehen pertsona edo bigarrena denetan, edota Objektu Zuzenarekin komunztadurarik ez dagoenean:

- (15) NOR edo S *naiz* *nintzen*
 NOR-NORKa edo S-OZa *zaituf* *zintudan*
 NOR-NORI edo S-ZO *natzaizu* *nintzaizun*

Beraz, haurrak hizkuntza entzundakotik aztertu eta ikasi behar badu, hara hemen euskal aditz jokatuak ondo osatzeko ezagutu beharrekoak, besteak beste:

- Aditza joka daitekeen esapide mota da
- Aditz jokatuak hitz batekoak (1a) edo perifrasiak (1b-d) izan daitezke
- Perifrasietan hitz bat bakarra izaten da jokatuakoa
- Zein hizkiri dagokion zein marka (pertsona, numeroa, aldia, modua)
- Hizkia zein pertsonari dagokion: *adz, -t* : 1. singularra
- Hizkia zein argumenturi dagokion: *adz, -t* : dot (S), *jat* (ZO)
- Hizkia zein kasuri dagokion: *adz, -t* : dot (NORK), *jat* (NORI)
- Komunztadura motak eta hizkien hurrenkera (2. taula)

3. ADITZ MARKEN GARAPENA HAURREN HIZKUNTZAN

Ekintza, prozesua, aldia, egoera edota predikatua oso goiz hasten dira haurrak hitzen bidez adierazten, baina hauek ez dira beti aditzak izaten¹⁸.

2. Taula. Paradigma motak eta hizkien hurrenkera orainaldian eta iraganaldian

Komunztadura motak	Hizkien hurrenkera	
	Orainaldian	Iraganaldian
NOR	S..	z-ara S— zen-toz-en
NOR-Ka (NOR=1, 2)	OZ..S	z-aitu-t OZ..S zint-u-da-n
NOR-Kb (NOR=3)	Ø..S	du-zu S..Ø ze-nu-en
NOR-I	S..ZO	na-tzai-zu S..ZO nin-tzai-zu-n
NOR-I-K (NOR=3)	Ø..ZO-S	di-zu-t S.. Ø ..ZO ni-zu-n
Ø: soinu-edukirik gabeko hizkia.		

¹⁸ Haurren datuak Barreña (1995) eta Ezeizabarrena (1996)tik hartuta daude.

^x Inoiz gertatzen da, grabaketa berean tarteka marka gauzatzea ere: ezin dut (J 2;08), ezin du(t) (J 2;08).

SASI-ADITZAK ETA FORMULAK

Hasieran, jokatu ezinezkoak izanik, inolako aditz-laguntzaile, pertsona, aldia, edo bestelako markarik ez duten hitzak erabiltzen dituzte, *sasi-aditzak* deitutakoak:

(16) a(u)pa (M 1;07); bapo hau (M 1;07); papo (J 1;11); apapo (P 2;02); apapa (M 1;07; O 1;05); pumba (J 1;10; P 1;11); apatxi (M 1;07); apatx (J 2;01); txotxo lolo (O 1;08); hemen pupu (O 1;08)

Hauekin batera inoiz agertzen dira, aditza baino gehiago buruz ikasitako "aditz itxurako" *formulak* direnak.

(17) begira (M 1;07); be(gir)a (J 2;02); amon koko! (O 1;06); eman! (J 2;02); ikusi tita! (O 1;08); ikusi harea! (O 1;10)

Batzutan, *formulak* aditz jokatuak izaten dira (18).

(18) e(z)taki(t) (M 1;07); aizu (J 2;08); atanahi (e(z)t nahi)(J 2;05); guazen (O 1;10)

JOKATU GABEKO ADITZAK (M 1;07, J 2;01, P 2;01, O 1;07)

Oso goiz ageri dira formulak ez diren beste zenbait aditz: batzuk aginterakoak baldin badira ere, bada beste multzo haundi bat esperoko litzatekeen aditz-laguntzailea eta pertsona-markarik gabe gauzatuaren ondorio direnak.

(19) apu(r)tu (M 1;06); popota apu(r)tu (O 1;06), ni apu(r)tu (P 2;01), etoyi (etorr)i (M 1;07), ai(g)ia apu(r)tu (O 1;07), hau ipini (O 1;10), topatu (P 2;03), t(r)agatu (P 2;03), pota (bota) (J 2;01)

ADITZ JOKATUAK (M 1;07 J 2;04)

Haur gehienek hizkeran aurrena ageri den aditz jokatuak da kopula dugu, da(g)o-rekin batera, hirugarren pertsona singularreko kopulak alegia (20). Goiz hasten dira da laguntzaileak ere erabiltzen (21), eta du edo bizkaierazko dau (du) laguntzaile iragankorra ere berehala (22).

(20) ezta(g)u (M 1;07); Pe(r)u tonto da (J 2;04); hamen da(g)o (J 2;07)

(21) ha (i)pi(n)tten (d)a (M 1;09); hor ttattu da (M 2;00); pipitu (garbitu) da (J 2;08)

(22) eztau gure (M 1;10); aie (mine) ttattu dau hau (honek) (M 2;00); a(gi)ngo(d)o(t) (J 2;07)

SUBJEKTUAREKIKO PERTSONA- ETA NUMERO-KOMUNZTADURA

Aditz jokatuak agertzeak, ez du ordea, adierazten nahitaez komunztadura menderatu dutenik, batez ere hasieran, askotan pertsona-marka ez baitute ahoskatzen. Aurreneko hila-beteetan hirugarren pertsona singularrari dagozkion aditzak dira ugariak (22), eta inoiz, beste pertsonetarakoak ere pertsona-markarik gabeko aditzak ahoskatzen dituzte (23).

(23) ken(d)u gu(ra d)o(t) (M 2;00); dako(t) (M 2;03); ezin du(t) (J 2;08); eman du (J 2;10); tasi a (jausi da) (M 1;09); pitten da (ipintzen dot) (M 1;09)

Aditz jokatuak pertsona markak benetako komunztadura marka legez erabiltzen direla jakiteko modu bakarra aditz bera pertsona biren markekin gauzatu edota pertsona marka bera bi aditzi erantsita topatzea da (24).

(24) Subjektu markak bereizten hasten diren adina.
Pertsona.
Mikel 2;00 da(S3s, laguntzaile eta kopula),
doɿ(S1s), dogu(S1p)
Jurgi 2;08 da(S3s laguntzaile eta kopula),
da(g)o(S3s), duɿ(S1s)

Handik aurrera berehala ageri dira beste pertsona guztietarako aditz jokatuak, bi haurrengan, aditz iragangaitzetan (25, 26) zein iragankorretan (27-28).

(25) banoie (M 2;04); zu ipintzen za(r)a (M 2;11); gu(a)zen butakara! (M 2;08); horrek di(r) ez (M 2;04)

(26) txixita nago (J 3;01); txeritxo bat zera zu (J 3;01); nere gelan daude (J 3;02)

(27) ipini (d)ozu? (M 2;03); (i)piniko (d)o(g)u (M 2;00); ekarri bi(har d)ozue?(M 4;00)

(28) ezi(n) dut (J 2;08); hor (d)aukat (J 2;09); ezin duzu (J 2;09); deitzen die (M 3;06)

Lehenengoa hirugarren pertsona izanda, hara hemen guztien hurrenkera:

(29) Pertsona marken agerrera ordena:
3s -> 1s -> 1pl edo 2s -> 3pl -> 2pl

Baina hurrenkera honek ez du zertan inolako heldutasun prozesua adierazi, pertsona batzuk (hirugarrena) ikasteko besteak baino errazagoak direnik. Aditz motak bereiztuz geroz, bestelako hurrenkera ageri zaigu: aurrena aditz iragangaitzak agertzen dira, eta hauek hirugarren pertsona dugu lehenengoa, baina aditz iragankorretan lehenengoa agertzen lehenengoa pertsona izaten da (30):

(30) Pertsonen agerrera hurrenkera aditz moten arabera
Iragangaitzetan: 3s->1s edo 2s-> 3pl edo 1pl->2pl
Iragankorretan: 1s edo 3s-> 2s edo 1pl-> 3pl -> 2pl

Hurrenkera hauek, gure usterako, elkarriketako pertsonen maiztasuna isladatzen du, eta ez, ordea, zailtasunaren arabera ikasbidea.

**SUBJEKTUAREKIKO
NUMERO-KOMUZTADURA**

Plurala pertsona baino beranduago markatzen dute haurrek aditzean(31).

- (31) Subjektu marken ahoskatze emankorra. Numeroa
Mikel 2;04 da(S3s), di(r)ez(S3pl)
Jurgi 3;02 da(g)o(S3s), daude(S3pl)

Hala ere, plural egoki markatzeko arazoak izaten dituzte umeez hilabete batzuk berantago ere (32, 33).

- (32)han dau(z) (M 1;07); hemen dau(z) bi kotxe (M 2;05)

- (33)batzuk ez dute balio (J 3;08); nun da? [diez] (J 3;03)

**OBJEKTUEKIKO
PERTSONA-KOMUNZTADURA**

Subjektuaz gain, bi objektuekiko komunztadura-formak oso maiz ageri ohi dira helduen hizkeran. Baina NOR-NORK, NOR-NORI-NORK, NOR-NORI paradigmatiko aditz guztiak ote dira objektuekiko komunztadura jabetu izanaren adierazgarri? Adibidez, (33-34)koak? Eta hiru argumentuekiko komunztadura-aditzak ote dira (35) eta (36)?

- (33)tati (eztakit) ipini (M 1;10); eztau gure (M 1;10)

- (34)ezi(n) du(t) ni(k) (J 2;08)

- (35)jo (eg)ingo (d)otzut (M 2;07)

- (36)niri jo egin dit (J 3;03)

Harik eta haurrak beste nonbait soinu-educia duen objektu markadun aditzen bat gauzatzen ez duen bitartean (*ditut, dodaz, zaitut*), ezin ziurta daiteke (33-36) adibideetan Objektu Zuzenarekiko komunztadura gauzatuta dagoenik (datiboarekin egon arren). Baina Mikelengan, lau urteak bitartean ageri diren objektu pertsona guztiak hirugarren pertsonakoak dira, 2. Taulako NOR-NORKb eta NOR-NORI-NORK paradigmatikoak, alegia, eta hauetan OZrekiko komunztadura marka hutsa izanda, ez dago komunztadura gauzatuaren ziurtasuna izaterik (nahiz eta ZOrrekikoa ziurra izan (37)).

- (37)Ana(k) eman dosta (M 2;07); jo e(g)in-go(d)otzut (M 2;07); itxiko (d)oskue (M 3;04)

Pentsabide honetara hasieran bi haurrek ekoitzitako zenbait adibidek eraman gaituzte. Horietan objektuekiko

komunztadura ez gauzatzeko joera ageri baita (38-42).

- (38)niri ez to gustetan [ez jata] (M 2;03)

- (39)Mikel: *garajie kendu in dau* [dosta] (M 2;04)
Heldua: nok kendu dotzu garajie?

- (40)ze(r)gatik kendu dau niri kamioie? [dosta] (M 2;04)

- (41)nundik askatu du [zaio] (J 3;08)

- (42)jotzen du puñetazoak niri [dizkit] (J 3;11)

Lau urteak bitartean Mikelek ahoskatu dituen objektu marka bakarrak, NORI-*rekiko* komunztadurakoak dira (43), beraz, zenbait komunztadura forma falta dira bere datuetan. Jurgirengan, aldiz, horrelakoez gain (44), ageri dira *zaitut* (NOR-Ka) modukoak ere, berandu samar agertu arren.

- (43)gauza bat e(g)in (d)otzet (M 4;00); galdu jata (M 2;07); osatu (eg)in bihar jatzu (M 4;00); zelan ipinten jako begixe?(M 2;11)

- (44)ez zait gustatzen hori (J 3;07); zuri gustatzen zaizu?(J 3;03)

Nolanahi ere, objektuekiko komunztadura markak, subjektuekikoak baino beranduago erabiltzen dituzte (Mikelek 2;07 eta Jurgik 3;05 adinaren inguruan). Baina handik aurrera ere, askotan gertatzen da aditzeko Objektu markak gauzatu arren, formen erabilera ez bat etortzea helduenekin (45-47).

- (45)tortazo bat emango zaitut [dizut] (J 3;09)

- (46)harrapau in dotzien Gordinfloni eta Mickeyri [ebazan G eta M] (M 3;11)

- (47)lotu (eg)ingo (do)tzut [zaitut] (M 3;07)

Ondorengo taulan helduengan eta haurrengan aurkitutako komunztadura motak eta paradigmatik erkatuko ditugu. Ikus daitekeen bezala, haurrek 4 paradigma mota erabili dituzte, helduen bosten lekuan. Hiru paradigmatik erabilera helduenaren parekoa izanda, batean bereizten dira haizetatik, bi haurrek bakarrik baitaude falta diren bi komunztaduretarako. Mikelek *dotzut*, erabiltzen du bai NOR-I-K *dotzut* bai NOR-K-eko *zaitut* behar duen testuinguruetan, eta Jurgik, aldiz, alderantzizko aukera egin du: NOR-K-eko *zaitut*, *dizut* eta *zaituten* lekuan.

3. Taula. Helduen eta haurren hizkerako paradigmatik

Komunztadura	NOR	NOR-NORK	NOR-I	NOR-I-K	
Helduen paradigmatik	NOR (NOR=1,2) naiz	NOR-K (NOR=3) zaitut	NOR-K dut	NOR-I zait	NOR-I-K dizut
Haurren paradigmatik					
Mikel	naz	*dotzut	dot	jata	dotzut
Jurgi	naiz	zaitut	dut	zait	*zaitut
* : helduen erabilerari ez dagokiona					



Arrasateko Umezaintza

Adibide hauek azaltzeko modu bat honako hau izan daiteke. Haur txikien hizkeran ageri diren komunztadura anizkoi-tzeko aditzak ez dira itxuraz bezain anizkoi-tzekoak. Ordez-kotza bi paradigmaren artean bakarrik gertatzeak haurrek komunztaduraren sistematasuna beraganatu dutela erakusten digu. Ez dute edozein forma beste edozeinen ordez gauzatzen, eta bi haurrengan paradigma beren artean gertatzen da ordez-kotza, norabidea alderantzizkoa izan arren, Mikelen eta Jurgiren kasuan. Bi paradigma hauek antza dute hainbat ezaugarrietan: biak aditz iragankorrei dagozkie; NOR-I-K paradigmak NOR hirugarren pertsona izanik komunztadura marka hutsa dagokio, ez ordea NOR-Irako. Horregatik hartu dituzte NOR-Ka eta NOR-I-K, biak komunztadura bikoi-tzekotzat, Subjektuaren eta Objektuaren arabera jokatu-takotzat, alegia. Ordez-kotza hauetako sistematasunaren beste ezaugarri bat, komunztadura gauzatutako objektua beti biziduna izatearena da. Hala, Mikelek *lotu*rekin oso bereizketa nabarmena egiten dut laguntzailea hautatzerakoan, objektu biziduna edo bizigabea den, lehenengo kasuan (NOR-Ka) bakarrik hautatzen baitu NOR-I-K paradigma, eta ez bigarrenean (NOR-Kb).

(48)lotu (eg)in bi(har d)ot bizikletie (M 3;07)

4. HAURREN ETA HELDUEN HIZKEREN ARTEKO ALDEAK


Haur txikiak aditzaren morfologia urraska ikasten du. Hasieran, ekintzak edo egoera-aldaketak adierazteko erabiltzen dituen hitzak (ez aditzak), *sasi-aditzak* eta *formulak* izaten dira. Oso goiz agertzen dira aditz ez jokatuak, inoiz aditz jokatuaren ordez ere erabiltzen dituela, baina pertsonarekiko

komunztadura menderatzen hasten denean, berehala azaltzen dira pertsona guztientarako markak (24-32 hilabeteetan), oso pertsona akats gutxirekin. Subjektuarekiko komunztadurari bakarrik dagozkie lehenengoko forma hauek. Ez dirudi aditz iragankorren eta iragangaitzen arteko bereizketa ezagutzeko inongo zailtasuna duenik, haurrak laguntzaile egokiak aukeratu izanak erakusten digun bezala. Pluraltasuna, ordea, pertsona markatzea baino gehiago kostatzen zaio haurrari: bate-tik, hilabete batzuk beranduago agertzen dira pluralerako markak aditzean; eta bestetik, hasi eta gero ere askotan singularreko formak esaten ditu txikiak plurala esatea dagokionean. Honek nolabaiteko ez-erabatekotasuna adierazten du plurala jabetzerakoan, pertsona ikasterakoan gertatzen ez dena.

Komunztadura anizkoi-tzak ere ez ditu haurrak bapatean menderatzen, baina badirudi nolabaiteko hausnarketa gauzatzen duela haurrak 2;6 eta 4 urteak bitartean. Garapen honetan haurrak bereiztu ditu Subjektuarekiko eta Objektuarekiko komunztadura, baina ez oso ondo bi objektuen arteko banaketa, iragankorretan. Objektu bizidun / bizigabe bereizketa pisukoa agertzen da bost paradigmaren arteko aukera egiterakoan, beti bizidunarekiko komunztadura markatzeko nahia erakusten dute haurrek eta. Aditzaren konplexutasun guztia- ren barruan hiztungaiak pausokako ibilbidea egiten du: lehenengo erroa, gero Subjektuarekiko komunztadura (NOR edo NORK), ondoren objektu bizidunarekikoa (NOR edo NORI), eta bi hauekin batera, atzeragotik, pluralaren markaketa. Subjektu eta Objektu batekiko komunztadura bereganatua izan arren, hala ere, lau urteak bitartean ez dirudi oraindik haurrek aditz-sistema osoa menderatzea lortu dutenik.

Perpous txertatuen jabeakuntza

Andoni Barreña
Salamanca Unibertsitatea



Arrasateko Umezaintza

1. AZTERTURIKO HIZKUNTZA ARLOA

Lantxo honetan perpous txertatuen agerrera erakutsi nahi dugu. Perpous elkartuen artean soilik txertatuak erakutsiko ditugu, beraz. Adibideak biltzeko, besteak beste, Barreña (1994, 1995), Elozegi (1996) eta Zubiri (1997) lanetara jo dugu. Hauez gain, haurrei egindako grabaketen transkribaketak ere arakatu ditugu.

Perpous txertatuen itxurari begiratzen badiegu, nabaria da euskaraz gehienetan mendetasuna adierazten duen txertagailuren bat eranstea beharrezkoa dela perpous txertatu bat erakitzeko. Nolanahi ere, badira txertagailurik gabeko perpous txertatuak ere (1). Txertagailuren bat dutenen artean, orohar, bi multzo handi bereiz ditzakegu, txertagailua aditz jokatuari eransten baldin bazaio (2) edo aditz jokatu gabearren jarraian jartzen bada (3).

(1) zuk txakurra *ikus*i nahi duzu

(2) *atzo berandu etorri nintze*la esan duzu

(3) *etxera sartu orduko* oinetakoak erantzi genituen

Honez gain, aipagarria da euskaraz badaitekeela perpous txertatua osatzea nagusiari dagokion atala gauzatu barik (4).

Halakoak elkarrizketaren barruan gertatzen dira, noski.

(4) *ez dudala jasoko*

Bestalde, perpous txertatuak, adierazten dutenari edo betetzen duten zereginari so eginik, mota ugariak dira, hala nola, *subjektuzkoak* -subjektu baten zeregina betetzen dutelako- (5), *objektuzkoak* -objektu baten zeregina betetzen dutelako- (6), hauen artean *konpletiboak* (7) eta *zehargalderak* (8) daukaten garrantziagatik bereiz daitezkeelarik, *kausazkoak* (zergatik galderari erantzuten diotenak) (9), *helburuzkoak* (zertarako galderari erantzuten diotenak) (10), *baldintzazkoak* (baldintza ezartzen dutenak) (11), *denborazkoak* (noiz, noiztik,... galderari erantzuten diotenak) (12), *lekuzkoak* (lekua adierazten dutenak) (13), *moduzkoak* (nola galderari erantzuten diotenak) (14), *ondoriozkoak* (ondorioa adierazten dutenak) (15), *kontzesiboak* (hala ereren bat jartzen dutenak) (16). Ez ditugu *konparaziozkoak* arakatu, baina zerrenda honi *erlatibozkoak* deituak (17) erantsiko diegu (izen sintagmaren izenlagunak betetzen duten zeregina hartzen dutenak). Antzeko multzoetan perpous txertatuak bereizten dituzten sailkapen ugari eta ezberdin dagoen arren, guk hauxe jarraitzea erabaki dugu, besteren bat jarraitzea ere zilegi iruditzen zaigularik.

- (5) *gaur goizean etorri denak ez nau ezagutu; Bilbotik ekarri duzuna ez da hemen azaldu*
- (6) *zuk erositakoa jan dugu; hori egitea ez dugu hemen onartzen*
- (7) *mendirira joan zaretela esan didate; inork ez daki orga berria erosi dugunik*
- (8) *ez dakit zer esan duzun; ikusi zelako polita den!*
- (9) *zu izan zarelako mindu egin naiz; ez du diru arazorik, aberatsa da eta*
- (10) *helburuak lortzeko bitartekoak jarri behar dira*
- (11) *ulertzen baduzu ondo egingo duzu azterketa; jakin izan banu ez nintzateke etorriko*
- (12) *kalean ikusi zaitudanean ezagutu zaitut; idatzi orduko ondo ausnartu*
- (13) *gertatutako lekuan elkartu ginen*
- (14) *esan duzun legez egingo dugu; esan dugun bezala ondo dago*
- (15) *hain da polita, ezen maitemindu bainaiz*
- (16) *hori esan duzun arren, ez dizut sinetsi; egia bada ere, gezurra dirudi*
- (17) *aita izan da etxera etorri den gizona; hor dagoena nire laguna da*

Txertatuen kontua oso konplexua da eta hemen deskribatuko duguna oso orokorra izango denez, ohartxo batzuk egingo ditugu goian aipaturikoari buruz. 1. Mota bereko txertatuak egiteko gehienetan bide edo txertagailu bat baino gehiago izaten ditugu. Adibidez, kausazkoetan, *-(e)lako, eta, bait-, -(e)nez gero, ze*, eta abar erabil ditzakegu. 2. Mota berekoen artean, txertagailu ezberdinei esker, azpimotak ere bereiz daitezke. Oso aipatua izaten da kontu hau denborazkoen artean, esaterako. 3. Batzuetan txertagailu berak funtzio ezberdinak izaten ditu. Adibidez: *-(e)la* txertagailuak konpletiboak zein denborazkoak osatzen ditu. 4. Herri hizkeran ez dago gramatika liburuetan dagoen besteko aberastasunik, eta sarritan liburuetan agertzen ez diren txertagailuak erabiltzen dira. Hori gertatzen da, esaterako, kausazkoen artean *ze -ze ez dut gura-*

edo antzeko txertagailuekin (tokiaren arabera *zergatik* ere izan daitekeelarik: *-zergatik ez dut nahi-*).

2. PERPAUS TXERTATUAK HAURREK NOLA EKOIZTEN DITUZTEN

Atal honetako datuak, garapenean zehar ikus daitezkeen urratsen arabera taxuturik aurkeztuko ditugu. Urrats hauek erizpide zehatzen arabera taxutu ditugun arren, beste era baten ere taxu zitezkeen. Helburua datuak argitasunez eta txukuntasunez erakustea da.

2.1. Txertagailurik gabeko aldia

Arakatu ditugun haur guztien ekoizpenetan nabaria da hasieran txertagailurik edo perpaus txertaturik ez dugula aurkitu. Esaterako, Oitz elebakarrak 1,05-1,11 tartean ez du halakorik gauzatzen. Gauza bera ikusi dugu besteengan: 1,11-2,02 tartean Perurengan; 1,06-2,01 tartean Mikelengan; 1,03-2,02 tartean Egoitzengan. Bianditzengan gauzak ez badaude hain argi ere, grabaketak hasi ziren unean morfologia garatzen hasia baitzen, 1,06 adineko grabaketan ez dugu txertagailurik aurkitu.

2.2. Lehen txertagailuen agerrera

Haur guztiengan ikusi ditugun lehen txertagailudun esaldien ekoizpenek bi berezitasun nagusi dituzte. Batetik, esaldian atal txertatua baino ez da agertzen, hau da, nagusiari dagokion atala ez du haurrak ekoizten (18-22). Bestetik, haurrek darabiltzaten lehen txertagailuak aditz jokatugabeei eransten zaizkien *-ta, -tzen, -tzera eta -tzeko dira* (18-22). Sarritan, gainera, hitz bakarria baino ez dute ekoiztiko. Hau gertatzen da, adibidez, *-ta* txertagailua darabiltzen batzuetan (23).

(18) zuk eka(rr)ita (O 2;01); oin hori apurtute (O 2;02); belarra ebaitten honekin (O 2;02); ba har(r)ia ekartzen (O 2;03); hemendik sartzeko (O 2;05)

(19) (i)biltzen doa (P 2;05); lolo (e)giteko (P 2;05); dena dena apu(r)tuta (P 2;05); ipintzeko t(r)atora (P 2;07)

(20) apu(r)tute da(g)u (M 2;02); hau bai apu(r)tute (M 2;02); kolastzeko (M 2;04)

(21) tal(d)ia lolo itten (E 2;03); orai hau patxatzera (E 2;04); dadan itten belala ta hau lolo itten et(z)a(n)ta (E 2;05); hara, nik jazteko (E 2;06),

(22) amona tatera(ekartzera) hau (B 1;09); nanan itten (B 1;09), p(l)i(s)ti p(l)a(s)ta itten (B 2;00); ura erateko (B 2;02)

(23) ez, ez, konponduta (O 2;00); apu(r)tuta (P 2;03)

2.3. Adizki jokatuerei erantsitako lehen txertagailuak

Adizki laguntzaileei (*dut, diot, zara,...*) eta trinkoei (*dakizu, dago, daukat,...*), hots, aditz jokatuerei, eransten zaizkien txertagailuak geroxeago agertzen dira haur guztiengan. Hala-koen erabileraren hasieran ondoko berezitasunak ikus ditzakegu:

1. Aditz jokatuerei erantsitako txertagailuen erabilera ondoko adinekin hasten da haurrengan: 2,04 Oitzengan; 2,07 Perurengan; 2,04 Mikelengan; 2,03 Egoitzengan; 2,05 Bianditzenengan. 2. Hasieran erabiltzen dituzten mota honetako txertagailuak *-(e)la, -(e)n, -(e)lako* eta *eta/bait-* izaten dira (24-27). Lehenengoa, konpletiboa da, bigarrena, ordea, zehargaldera. Kausazkoak ere une honetan agertzen dira. 3. Sarritan atal txertatua baino ez dute ekoizten. 4. Txertatu hauen erabileraren hasieran ez dituzte beti txertagailuak gauzatzen, batzuetan beharrezkoa dena ez baitute ekoizten. Fenomeno hau oso nabarmena gertatzen da zehargalderekin (28).

(24) motxila bat topa(tu) dogula (M 2;04); hori zurie izen dala (O 2;04); orain doala kotxea (P 2;09); (eg)uxkia, mandoa, ha(r)tza ttikia gainen du(e)la (B 2;05), aterea d(ag)ola (E 2;06)

(25) ikusi nola egin dun punbala! (P 2;07); beitu beheien zer dekoten (daukadan) nik! (O 2;05); beitu zelan jueten dan!! (O 2;05); hara, hara non den ma(r)azkik (B 2;05); hara oain nola politta pa(ra)tu du(e)n, e (B 2;05); hara non den (B 2;05), hara xe(r) lu(e)n (E 2;08)

(26) ba han egon dalako (O 2;06)

(27) ttikia baita kotxea (E 2;03); hol beroa bait(ag)o (E 2;04); balelen(barrean) bait(ag)o (E 2;07); itxi in b(eh)ar (d)ut hau, erori itten da ta (B 2;04); suka(d)en badu(gu) fu eta (B 2;05); txikie da ta (O 2;04); behar du eta (P 2;07)

(28) ikusi nola egiten du(en) punbala! (P 2;07); beitu zer ein dau(du)en kotxiek (M 2;03); zure kamioie ez dakit nun dau(en) (M 2;05); zelan mubitzen dan, beitu! (O 2;05); hara nola in dut(en) (B 2;05); hara nola i(g)o naiz(en) (B 2;05)

2.4. Kausazkoen agerrera

Aditz jokatuerekin batera gauzatzen dituzten lehen txertagailuen artean kausazkoak jaso ditugula aitatu dugu goian. Alabaina, kausazkoekin gertatzen dena oso aipagarria iruditzen zaigulako, berezita aurkeztea erabaki dugu. Haur gehienek erabiltzen dituzte kausazko txertagailuak, baina itxurari

begiratu ez gero, bi motatakoak ikus ditzakegu: 1. Ohiko atzizki edo aurizki batez eraikiak, *-(e)lako, eta/bait-*, esaterako (26-27). 2. Esaldiaren hasieran ekoiztiriko txertagailu aske batez ekoiztiak, *ze* eta *zergatik* gehienetan (29-30). Baina kontu honetan haur guztien jokabidea ez da bera.

Mikel elebidunak, esaterako 2;02tik 2,11ra bitartean esaldien hasierako txertagailuak baino ez darabiltza (29). Adin honetatik aurrera bietarikoak darabiltza. Oitz elebakarrak, ostera, bietarikoak darabiltza 2,04tik aurrera (30), aditz jokatuerei erantsitako txertagailuak erabiltzen hasten denetik, alegia. Peru elebidunak ere bietarikoak darabiltza 2,07tik aurrera

(31). Bianditz elebakarrak ohiko aurizki eta atzizkiak (*bait-, eta, -lako*) darabiltzan arren

(32), behin *po(r)que* ere badarabil

(33). Egoitz elebakarrak ohikoak baino ez darabiltza

(34), behin *bait-* eta *eta* esaldi berean gauzatzen dituelarik.

(29) zeati Ana(k) esan dau(du) (M 2;02); zeati lolo ein bi(beh)ar dau(du) txakurtxue(k) (M 2;04); ze deko(dauka) granue (M 2;05)

(30) ze bestelan kenduko dozku(digu) (O 2;04); txikie da ta (O 2;04); itxi piskaten hori ze nik ez dekot(daukat) eta (O 2;05); ze nirie da ta (O 2;05); ez, txikie da ta (O 2;05)

(31) ze balio du (P 2;07); behar du eta (P 2;07)

(32) tipen mina itten do(du) ta (B 2;06); zikina(k) b(a)ita(u)de (B 2;08); hautsi dulako hau sozi(eda)den (B 2;11)

(33) e(z) du(t) epul(d)in kaka ta itten, po(r)ke ez di(t) ama(k) pakete pa(ra)tu (B 2;07)

(34) patata(k) txar(ra)k baiti(r)a ta (E 2;10); txar(r)ak baiti(r)a ta, zikina(k) baiti(r)a (E 2;10)

Mikel elebidunak erakusten duen jokabide hau azpimarragarria iruditzen zaigu. Kausazkoen artean haurrek *-(e)lako* eta *eta* bezalako txertagailu atzizkiak erabiltzea zein esaldiaren hasieran *ze* bezalako txertagailu askeak erabiltzea itxarongarria iruditzen zaigu, entzuten duten euskararen ere mota bietarikoak daude eta. Kontua da haur hau 2,04 adina duenean badarabiltzala txertagailu atzizkiak, baina ez kausazkoetan. Kausazko txertagailu atzizkiak ez ditu 2,10era arte ekoizten. 2,02tik 2,09ra tartean, ostera, esaldiaren hasieran gauzatutako txertagailu askeak baino ez darabiltza kausazkoetan, eta kausazkoetan baino ez. Gainera txertagailu aske hauek sarritan *zergatik* eta *zertako* dira (35). Bururatzen zaigun itauna hau da: *zergatik* darabiltza txertagailu aske hauek aldi luze honetan? Guri bizpahiru zio otu zaizkigu: 1. Egongune horre-

tan txertagailu askeak ekoitz daitezke ahozko euskaran (gogoratu *ze* delakoa). 2. Haurren artean erabiltzen da *zergatik* zeregin hau betetzeko. Eta helduren batzuk era badarabilte. 3. Gaztelaniaz ere horrela egin daiteke, gaztelania baita haur honen beste hizkuntza.

Ez dugu baieztatzen fenomeno hau gaztelaniaren eragin zuzena denik. Aukera dela baino ez dugu esaten. Edozelan ere nabaria da halakoak kausazkoetan baino ez direla gertatzen eta euskarak ere bide hori baduela, hots, txertagailu askeen bidea.

- (35) Mintzaideak: zertarako? Haurrak: *zertako lolo ein bi(begar) dau(du)* (M 2;04); mintzaideak: zergatik? Haurrak: *zergatik gure dotelako* (M 2;10)

2.5. Txertagailuen agerrera oneak

Mota guztietako txertatuak ez dira une berean agertzen. Orain arte ikusi dugun legez, *-(e)la* txertagailuaz eraikitako kompletiboak, *-(e)n* markaz osaturiko zehargalderak eta kausazkoak izaten dira gehienetan lehenetarikoa. Ikus ditzagun beste batzuen agerrera oneak.

-Helburuzko txertatuak, zertarako galderari erantzuten diotenak alegia. Oso goiz agertzen dira haur guztiengan. Hori horrela izateko arrazoia halakoak aditz jokatu gabeei *-(z)eko* txertagailua erantsiz eraikitzen direlako da, eta, lehenago esan dugun legez, jokatu gabeei erantsitako txertagailuak, oro har, goizago agertzen dira.

- (36) Egoitzek mar(r)axkik *itteko* (E 2;07); pixa *itteko* ra a(r)bola (B 2;01); ura *erateko* (B 2;03); kolasteko (M 2;04); lolo (e)giteko (P 2;05); pintatzeko da kotxea (P 2;07); hemendik sartzeko (O 2;05); txaintxaune *eiteko* (O 2;05)

Subjunktiboaren bidez eraikitako helburuzko txertatuak, ostera, beluago darabiltzate haurrek (37), hasieran adizki egokia ekoizteko zailtasunak dituzten arren. Subjunktibodun formak, oro har, 3 urtetik aurrera ekoizten dituzte.

- (37) sartuko naz hemen Jurgik ez dozten² ikusi (O 2;10); Batman ipini (d)ot ez *daiten* jausi (O 3;01); ba nik ez dot gure holan ibili *gaitezen* (O 3;01)

-Objektuak eta subjektuak osatzeko aditz jokatu gabeei erantsi zaizkien *-(z)ea*, -tako eta antzekoak ere goiz darabiltzate haur guztiek (38).

- (38) ez dozu nahi medikuen(er)a juetie ala? (O 2;06); guk guk eindakue (O 2;06); ni(k) be(ere) gura do(t) be(z)ka(l)tzie (M 2;03);

- eske nik gure (d)ot *jatie* koliflor (M 2;11); eran du(t) medikuk ema(n)takoa (B 2;04); (Ai)nixe(k) (e)ka(r)ritakoa (B 2;04)

Objektuak eta subjektuak adierazteko aditz jokatu ei erantsitako *-(e)na* ere une berean jaso dugu (39). Bide hau erlatiboaren bidea da, nahiz erlatiboaren ondoko izena isildurik dagoen.

- (39) zuk eruen dozuna nun da(g)u? (O 2;06); zure atzien da(g)uena (M 2;10); eta erueten dabena (duena) bizikleta bat (M 2;11); ikusi duguna zen tutupunba bat (P 3;00); hala oxaba(k) daxo(jaso) du(e)una (E 2;10)

-Denborazkoen artean, aitzitik, aditz jokatu ei erantsitako *-(e)nean* txertagailudun esaldiak dira bildu ditugun lehenak (40). Edozelan ere, badirudi, zailtasunak izaten dituztela hauek egitean, erabileraren hasieran behintzat (41). Aditz jokatu gabeei erantsitako *arte*, *eta gero*, *-(z)erakoan* eta abar beluago jaso ditugu (42). Gogoan izan behar dugu, denborazkoen artean esanahi ugariak direla eta askotan denboraren antolaketaz jabetzea dela haurrei zaila egiten zaiena.

- (40) bai, nik amaitzen dotenien e (O 3;01); hasarratzen zarenien esaten dozu (O 3;03); gero pa(ra)tuko du(gu) eto(r)tzen (d)ene(a)n Orentzero a(s)ko (B 2;06); bai, (e)uria a(r)i dunen tapatutzen da burua (B 2;06); sen(d)atzen (d)enen odola (E 2;11);

- (41) ez, zu ez zaren, ez zaren, ez *zariena* etorri (O 2;09); egunkaria bila goaz, *bagoaz* (goazenean, esan nahi du) (P 2;10)

- (42) zu(k) hemen expe(ra)tu ni ni (e)tolu *a(r)te* (E 2;11); esan dau(du) Izaskunek hori amaitu *arte* (O 3;02); bai bagoiez, bezkal bezkaldu *ta gero* (O 4;03); ze gero holan ipintzen badogu, ba holan ipintzerakuen gainien jausi ingo da (O 4;06); eurek hiltzen direnerako holan geratzeko? (O 4;08); mendire juen *baino lehenau* tren hartu (d)ogunien (O 4;11)

-Moduzkoen artean *barik* txertagailuarekin osaturikoak goiz agertzen dira (43). Aditz jokatu ei erantsitako *-(e)n legez/moduan/bezala* beluago ikus ditzakegu (44).

- (43) ni banue bultze *barik* (O 2;04)

- (44) ba oiluek ein daben moduen (duten moduan) (M 3;00)

² Adizki laguntzaile honek bi ez-egokitasun biltzen ditu. Batetik indikatiboa da, naiz subjuntiboari dagokion *-n* txertagailua duen. Bestetik nor-nori-nork motatakoa da, inguruak noro-nork motatakoa eskatzen duen arren. *Dozten* formaren baliokidea estandarrean *didan* litzateke, morfema berberak dituelarik.

-Erlatiboaren bidea goiz darabilte hurrek, 3,00 urte inguruan edo goizago, alegia. Gehienetan lehen erlatiboak deklinatuak izaten dira (45), ondoren agertzen dira erlatiboak hutsak (46). Gainera, erlatiboak, ohi denez, deklinabide atzikiak hartzen dituztelarik, hainbat funtzio betetzeko erabiltzen dituzte (47).

- (45) zuk eruen dozuna nun da(g)u? (O 2;06); zuk eskuen dekozune; emon eskuen dekozune! (O 2;10); hala ixeba(k) jaso duna (E 2;10)
- (46) ez, umiek eiten dabiezen (dituzten) okerkeriek (O 2;11); mintzaidea: zein da submarinue?, haurra: ur azpitik ibiltzen dan barkue (O 3;04); uretan ibiltzen diezen arrainak (O 3;08)
- (47) Jurgi dabilenarekin jolasten (O 3;10); jausi jatenez(zaidanez) (O 3;10); nahi dozunera, zertara jolastuko (do)gu? (O 4;06)

-Baldintza ezalegiatzko edo errealak (48) goizago agertzen dira alegiazkoak edo irrealak baino (49). Bigarren hauek osatzean, (49) adibidean ikus daitekeenez, zailtasunak dituzte hurrek. Gainera, badirudi, haur batzuek bederen, beste bide bat hartzen dutela alegiazko baldintzak egiterakoan (50). Badirudi alegiazko baldintzak egituratzeko iraganeko adizkiak erabiltzen dituztela. Edozelan ere, halako adibideak haur bakar batengan baino ez ditugu bildu.

- (48) ni(k) kaletila beteko lut Nahikalili honara jo(a)ten bada (E 2;11); hola ibi(l)tzen bada (B 2;06); ta e(g)uxkia bar(ag)o, bai (B 2;11); zurie apurtzen bada holan, esan niri (O 3;02); lehoiengana jueten bazara, juen (O 3;02)
- (49) hemen aukin bazuen zulo bat ba sartu sartuko /xx/, hemen aukin bazuen, hemen aukin bazuen, hemen aukin aukin bazuen zulo bat ba sartu ahalko lio, aukin, sartuko nion hemen aukingo bazuen zulo bat, baina ez dauka eta ezin diot sartu (O 4;06)
- (50) nik foka bat aukingo badoten baloiekin jolastuko doten (O 4;09)

-Ondoriozkorik edo kontseziborik ez dugu jaso arakatuko emanaldietan.

3. ONDORIOAK

Morfologia garatzen hasten direnean, laster hasten dira haurrak perpaus txertatuak osatzen. Lehenetariko txertatuak aditz jokatugabeei erantsitako txertagailuen bidez (-ta, -t(z)en, -t(z)eko,...) osaturikoak izaten dira. Sarritan, garapenaren hasiera honetan, atal txertatua baino ez dute ekoizten.

Aditz jokatuari erantsitako txertagailuen bidez eraikitako txertatuak, oro har, hilabete batzuetara agertzen dira. Hauen artean lehenetarikoak konpletiboak (-e)la), zehargalderak (-e)n) eta kausazkoak (-e)lako/bait-, eta, ze) dira. Konpletiboetan eta kausazkoetan, gehienetan behintzat, atal txertatua baino ez dute ekoizten. Zehargalderetan, aitzitik, perpaus osoa gauzatzea ohiko da. Azken hauetan jakin aditzak jokatzeko duen zeregin bultzagarria azpimagarria iruditzen zaigu, bera aditz nagusia izanik agertzen baitira zehargaldera gehienak.

Erlatiboak eta zenbait denborazkoak geroago ikusi ditugu. Subjuntiboz osaturiko helbuzkoak 3 urte izan arte ez ditugu jaso. Moduzkorik ere, *barik* alde batera utzirik, ez dugu halako adina duten arte bildu.

Hainbat motatako adibiderik ere ez dugu jaso, hala nola, ondoriozkorik eta kontseziborik. Alegiazko baldintzarik ere ia ez dugu bildu eta haur bakar batengan bildu ditugun apurrrak ia bost urte izan dituenetan eta ohiko bidea erabili beharren beste forma batzuk urraturik izan da.



Arrasateko Umezaintza

Arauetatik desbideraturiko fenomenoak

Andoni Barreña

Salamanca Unibertsitatea



Arrasate Umezaintza

1. AZTERTURIKOA

Sarritan gertatzen da, edo gerta daiteke behintzat, haurrek gauzatu duten esaldi edo egituraren bat helduek desegokituz hartzea. Baliteke haurrek ekoizten duten zerbait, nagusien ikuspuntutik begiraturik, arauarekin bat ez etortzea. Arazo hau esateko beste era bat, ekoizpen horretan edo horietan haurrek zailtasunak dituztela litzateke. Muturreraino joanik, badaude haurrek txarto hitzegiten dutela diotenak ere, edo egitura zehatz bat edo batzuk ondo menderatu ez dituztela esaten dutenak.

Kontu hau, gure eritziz, oso zabala eta konplexua da. Edozelan ere, gai honi buruz hitzegiten hastean ohartxo bi aurreratu nahi ditugu. Bata, bereizi egin behar ditugula hizkuntza mintzatua eta honen lege edo arauak, tokian tokikoak, eta Euskaltzaindiak eta gramatika liburuetan emaniko lege edo arauak. Argi utzi behar dugu umeek entzuten dutena ikasiko dutela, eta ez gramatika liburuetan edo hizkuntzalari, irakasle eta gurasoen gogoetan dagoena.

Bestea, ekoizpen 'ezegokiak' eta 'akatsak' bereizi behar ditugula. Lehenengoak, nolabait, garapenaren ondorioak lirateke, eta aldi baten buruan gainditu egiten dituzte haurrek. Zailtasun hauek ohikoak eta berezkoak lirateke, hizkuntzaren jabeakuntzaren garapenari begiratu ezker behintzat. Bigarrenak, oster, iraun egiten dute eta lau urte egin eta gero, eta

beharbada, sei, zazpi eta zortzi urte egin eta gero, iraun egiten dute haurren. Bigarren motako hauei 'akatsak' deituko diegu, nahiz beste ikuspuntu batetik 'asmatuak' ere dei geniezaieke.

Eztabaida, gure ustez, bigarren hauen inguruan egon daiteke. Zergatik sortzen dira? Noiz sortu dira? Noiz egokitzen dira umeak nagusiek ezarritako arauetara? Zer egin behar dugu desbideraketa hauek arzteko? Beste hizkuntza batek eraginik ote dira? Halakoak eta antzeko galderen inguruko eritziak sarritan entzun daitezke, alabaina, oso gutxitan izaten da kontuan haurrek hizkuntza garatzeko eta sortzeko duten ahalmena eta gaitasuna.

Umeek, edo zehatzagoak izan nahi badugu, gizakion garunek, hizkuntzak garatzeko ahalmenaz gain, hizkuntza garatzeko beharra ere badute. Normaltasunean eta gizartean hazten diren umeak, oro har, entzuten duten hizkuntzaren muintza bi eta hiru urte bitartean jabetzen dira. Hizkuntzaren ardatza den gramatikaren atalaz jabetzeko bereziki eraturik daude garunak. Ez da hau garunaren zeregin edo ahalmen bakarra, baina bai zereginetariko bat, eta gainera, bakarrik gizakien garunean ikus daitekeena, hots, gure garuna beste bizidunen garunetatik bereizten duena.

Edozein hizkuntzaren gramatikak duen eraketa abstraktuaz jabetzeko haurren trebetasuna ikusirik, pentsatzekoa da

gizakion garunak bide bereziak dituela hizkuntzaren eta gramatikaren jabeak errazteko, eragiteko, bideratzeko eta zuzentzeko. Nolabait esateko, argi samar dago, gure ustez behintzat, haurrek entzuten eta hain goiz ikasten dituzten gramatika eraketa abstraktuak ikusirik, garuna edo garunaren iharduera gramatikaren lege abstraktuak ezagutzeko, ikasteko eta sortzeko eraturik dagoela.

Haurrek, entzuten dituzten ekoizpen guztietatik gramatika legeak identifikatzeko, ikasteko eta erabiltzeko gaitasun berezia izan behar dute. Eta sortzeko baita. Hots, garunak gramatika legeak sortzeko, eraikitze prestaturik daude. Adibide bat jartzeko, pentsa dezagun, esaterako, zer egiten duten haur euskaldun hutsek, hots, euskara lehen hizkuntza bezala ikasi dutenek, gaztelania bigarren hizkuntza legez ikasten ari direnean 4 eta 5 urterekin, gaztelaniaren izen sintagmaren barruan determinatzaile eta izenaren arteko genero komunztaduraren inguruan. Besteak beste, erraz entzungo dizkiegu *el mano, el torre, el moto, el tribu, la fantasma, la agua* bezalakoak, eta sarritan zortzi edo hamar urterekin horrelakoak esaten jarraituko dute. Beharbada halakoak egundo ere ez dituzte entzun, baina asmatu, sortu egin dituzte. Zergatik? Lege bat asmatu dutelako. Garunak bultzaturik, entzuten duten gaztelanian, hizkuntza hori ikasteko prozesuan, gramatika legeen bila dihardute eta ondokoa asmatu dute: hitza *-a* batez amaitzen bada *la* artikulua erabili behar dugu, *-e/o/u* bokalez amaitzen bada, ostera, *el* artikulua hautatu behar dugu. Gaztelaniaren baitan lege hau dagoenentz eztabaidatik harantzago jo behar dugu. Ikusi behar duguna zera da: haurrek ez dituztela izen sintagma horiek banan banan ikasi, lege bat eraiki dutela baino, eta lege honen arabera moldatzen dutela euren ekoizpena.

Garunaren edo hauraren ahalmena eta zereginetariko bat gramatika legeak irakurtzea, igartzea, asmatzea, sortzea izanik, zergatik ez dugu onartuko lege berriak eraikitze gai direnik? Giza garunaren eraketa edo iharduerak bultzatzen ditu horretara. Gainera, historian zehar, hizkuntzak ez dira estatikoak izan, hiztunek eragindako barne bilakaera izan dutela badakigu eta.

Gure ustez, bada, haurrek badute gramatika legeak sortzeko gaitasunik eta beronek bultzaturik hizkuntza aldatzeraino ere hel daitezke. Aldaketak, baldin badira, txikiak eta apalak izango dira. Batzuetan arrakastatsuak, besteetan, den delakogatik, itzali egingo dira.

Ildo honetatik jarraiturik, normaltasunean hazten diren umeek erabiltzen duten hizkerak nahitanahiez lege sistema edo gramatika baten oinarriturik egon behar duela onartu behar dugu. Beste kontu bat da umeen gramatika helduen gramatikarekin edo estandarren gramatikarekin bat datorren. Alabaina, ukazina da umeek gramatika bat darabiltela.

Nola jokatu behar dugu umeek garatu dituzten lege berriak helduen edo estandarren legeetara erakartzeko? Zein izan behar da helduen eginbeharra? Umeen sormena errespetatu egin behar dugu ala nagusien bidera erakarri behar dugu? Edozein delarik erantzuna, euren egoera ulertu eta ezagutu egin behar dugu, naturak markaturiko bidea jarraitu baino ez baitute egiten.

Fenomeno honek, zer esanik ez, badu beste dimentsio bat

gure gizartean, bi baitira erabiltzen ditugun hizkuntzak. Gure herriko haur askoren lehen hizkuntza ez da euskara, erdara bat baino; edo euskara eta erdararen bat batera ari dira garatzen. Elebitasuna ez denez era berean gertatzen guztiengan, ume askoren asmamenak haur hizkera berezi samarrak erabiltzera bultzatu ditu, berezi samarrak, helduen ikuspegitik begiraturik, behinik behin.

Guk gai honetan arakaturiko umeengan zera aztertuko dugu, gure gramatikako zein egitura bereganatzea zail egin zaizen eta zein ez duten ikasi. Une batean zail egin zaizkien egiturak, aldi labur edo luze baten ondoren bereganatuko dituzte. Menderatu ez dituzten egituren ordez, ostera, lege edo bide berriak asmatuko dituzte. Zein lege berri? Zergatik? Beharbada galdera guztiak ezingo ditugu erantzun, baina arazo honetara hurbiltzen ahaleginduko gara.

Haurren hizkera helduok gramatika estandartzat hartu dugunerantz bideratzeko, zenbait tresna hartzen dira egokitzat, hala nola, eskola eta hezkuntza, komunikabideak eta testu idatziak, gurasoen eta helduen artezkarritza, eta abar. Guk ez dugu eskolaren zereginaz zehatz-mehatz hitz egingo, arazoa datuekin azaltzen baino ez gara saiatuko eta. Gainera, jarraian aurkeztuko dugun zerrenda ez da guztiz osoa izango. Baliteke haurrez haur edo aldaeraz aldaera zenbait ezberdintasun ere izatea eta edozeinek beste bizpahiru adibide gehiago izatea.

Honez gain kontutan izan behar dugu hiztun guztiek, mintzatzean, akatsak egiten ditugula, lantzean behin behintzat. Haurrek ere badituzte horrelakoak, baina ez da lantzean behingo akatsen zerrenda egitea gure asmoa, nolabaiteko sistematizazioa erakusten dutenena baino.

2. DATUAK: EZEGOKIPENAK ETA AKATSAK

Beste barik, ezegokipenen eta akatsen zerrendak egiteari lotuko gataizkio, baina zerrendak berezita erakutsiko ditugu.

2.1. Ekoizpen ezegokien zerrenda

Lehenago ésan dugun legez, hemen zerrendatuko ditugunak, aldi batean, beti nagusien ikuspegitik, lege edo arauetatik desbideratu egiten dira, baina hiru urte egin aurretik, edo agian beste ume batzurenagan lau urte egin aurretik, nagusiek itzaroten dugunera egokitzen dira.

2.1.1. Oro har, euskal izen sintagmak determinatzaile bakarra eskatzen du. Hurrei, sarritan, zaila egiten zaie *-a* artikulua hitzei erantzutea eta honelakoak egiten dituzte:

(1) *etxea gorria, *zein etxea?, *kotxea bat,...

Hasiera hasieratik (ikus Zubiriren lana JAKINGARRIAK honetan) haurrek hitzak *-a* marka eta guzti ikasten dituzte. Eurentzat banaezinak dira hasieran hitza eta *-a* marka. Gero, determinatzaileen kontuaz jabetzen direnean, zaila egiten zaie aldi batean *-a* artikulua beti hitzei erantzutea.

2.1.2. Partitiboa, *-(r)ik* marka alegia, *-a* markaren edo determinatzailearen ordez jarri behar dugu. Aurrekoaren bide-tik abiatuz, aldi batean partitiboaren marka erabili beharrean

-a marka erabiltzen dute:

- (2) *ez, ohiala ez!, *ez dut ardia ikusi,
*ez dago txakurra,...

Gure ustez partitiboaren kontu hau, 2.1.1. atalean aurkeztu dugunaren bidetik ulertu behar dugu. Partitiboaren erabilerraren hasieran hurrei neketsua egiten zaie berau beti erabiltzea, eta batzuetan lehenago egin izan duten moduan egiten dute. Agian, oraindik mugagabearen jabekuntzaren hasieran daudelako ere izan daiteke.

2.1.3. NORK kasuaren edo ergatiboaren erabilera ere ez da aldi batean arauarekin bat etortzen (ikus Elozegi eta Barreña-Zubiriren lanak JAKINGARRIAK honetan), nahiz honen balioa badakiten zenbaitetan erabiltzen dutelako. Aldi batean ez dituzte aditz iragankorretako subjektu guztiak -k markaz gauzatzen (eragozpen fonetikoez gain):

- (3) *zu hori ekarri, *Jon jan du, *aitita esan dit,...

Eragozpen fonetikoez gain, badirudi ergatiboaren -k markaren erabileraren hasieratik berau egoki erabili arte (ehuneko 90 aldiz) hilabete batzuk pasatu behar direla.

2.1.4. Adizki laguntzaileak erabiltzen hasten direnean, hasierako aldian, sarritan uzten dituzte adizki laguntzaileak ekoitzi barik:

- (4) gu lehen hor ibili, nik apurtu, zu lehen hona etorri,...

Beste ume batzuk, aitzitik, *da* adizkia darabilte edozertarako. Ikus ezazu mintzaide heldu eta haurraren arteko elkarriketa hau:

- (5) Haurra: *bota e(g)in da
Mintzaidea: bota egin du?
Haurra: bai
Mintzaidea: nor bota du ba?
Haurra: *ni
Mintzaidea: zuk bota duzu?
Haurra: bai

2.1.5. Antzeko jokabidea ikusi dugu hirugarren pertsonari dagozkion adizkiak, hala nola, *da*, *dago*, *daki*, *eta dauka*, edozein gramatika pertsonarekin erabiltzean, subjektuarekiko komuntadura erabiltzen hasi aurretik edo erabiltzen hasten direnean:

- (6) *ni badauka, *ni ez daki, *lagunak han dago,...

Haurrek oraindik ez dute subjektuarekiko komuntaduraren kontua guztiz menderatzen, eta sarritan hutsuneak egiten dituzte. Hirugarren pertsonari dagokion forma halako zentzuan erabiltzea beste hizkuntzatan ere gertatzen da. Gainera gauza jakina da hirugarren pertsonari dagokion formaren morfema Ø dela (ikus Ezeizabarrenaren lana JAKINGARRIAK honetan).

2.1.6. Beste erabilera ezegoki bat *dut/ditut* adizkien inguruan gertatzen da. Dagoeneko subjektuarekiko komuntaduraren erabilera menderatzen dutenean, objektua pluralean delarik neketsua egiten zaie adizkiak eskatzen duen pluraltasun honen morfema gauzatzea. Horrela, esate baterako, halako ekoizpenak gauzatzen dituzte:

- (7) *pilotak jan dut, *palak hartu du,
*kromoak erosi dugu, *ez dizugu horiek ekarri,...

Objektu zuzenarekiko komuntadura markak, hirugarren singularra eta plurala bereizten dituztenak, haurrek berandua-go menderatzen dituzte, eta horregatik pluraleko forma hauen erabilera zuzena haur batzuegan 3 urte t'erdia izan arte ez dugu ikusi.

2.1.7. Zehargalderetako -(e)n atzikia ere ez dute beti gauzatzen berau erabiltzen hasten direnean:

- (8) *ez dakit zer da, *begitu zelako polita da,
*ez dut ikusi zelan egiten du,...

Erabilera ezegoki hau haur guztiengan ikusi ahal izan dugu. Edonola ere, 3 urte izan aurretik egitura hau menderatu egin dutela esan dezakegu.

2.1.8. Kausazko txertatuetan sarritan ikusi dugu haurren-gan txertagailu askearen erabilera:

- (9) ze ez dut nahi, ze hemen dago, ze horrela egin du,...

Ekoizpen hauek, edonola ere, zuzentzat jo ditzakegu. Alabaina *zergatik* galdetzailea ere ikusi dugu zeregin honetan:

- (10) *zergatik nahi dut, *zergatik amak esan du,...

Halakoak, guk bildu ditugun datuen arabera behintzat, haur batengan baino ez ditugu ikusi (ikus Barreñaren lana JAKINGARRIAK honetan). Nolanahi ere, hiru urte t'erdia egin aurretik egitura honen erabilera lantzean behin baino ez dugu jaso.

2.1.9. Zenbait aditz formen ikaspen lexikoa ere nabaritu dugu. Horrela haurrek 'gurozu' edo 'nahizu' aditza, guretzat pertsona markak ere dituen, unitate lexikotzat hartzen dute eta ondoren, komuntadura markak erabiltzen hasten direnean halakoak egin ditzakete:

(11) *ez dut gurozu, *ez du nahizu,....

Horrelakoak beste hainbat kategoriatan ere gerta daitezke. Ohikoa izanten da nirea unitate lexikotzat hartzea eta ondoren, deklinabideaz jabetzean, nirearena bezalakoak esatea.

2.2. Akatsen zerrenda

Atal honetan zerrendatuko ditugunak, nagusien ikuspegitik begiraturik bederen, hurrek egoki ez darabiltzaten egiturak izango dira. Aurreko zerrendakoak aldi batean baino ez dituzte era traketsen erabili. Oraingoak, aitzitik, lau, bost, sei, zortzi urterekin oraindik ere entzun ditzakegu.

Beharbada ez daude denak, edo beharbada haur batzuen eragozpenak edo asmamenak baino ez dira izango, baina interesgarriak direlakoan guk bildurikoak jarriko ditugu, jakinik zerrenda ez dela osoa eta toki batetik bestera ezberdintasunak izan daitezkeela.

2.2.1. Zerrenda honetako lehena batez ere haur bizkaitar-
rrengan ikusi dugu. Beste hurrengan, guk aztertu ditugun datuen arabera, aurreko multzoko ezegokipena litzateke. Kontua da, bizkaiera entzuten duten hurrek, edo haur batzuek behintzat, erakusleen egongunea aldatu egiten dutela ondoko sintagmak eraikirik:

(12) *hau gizona etorri da, *hori kotxea niretzat da,...

Bizkaiera entzuten ez duten hurrengan ere aurkitu dugu halako bat edo beste, baina bizkaitar-
rengan egitura hau bost urterekin ohikoa da. Grabaketak amaitu eta gero ere entzuten dizkiegu hurrei halakoak. Ez dugu esan nahi hau denik erabiltzen duten egitura bakarra (ikus Zubiriren lana JAKINGARRIAK honetan), baina egitura hau oso erabilia dela bai.

Zergatik ote den pentsatzen jarriak, zenbait aukera ikusi dugu. Batetik, bizkaierako *hau gizon hau* bezalako egiturak. Bestetik, euskarazko esaldi tipikoaren hurrengera: *hau txakurra da*. Kontua zera da, ume hauek erakusleak izenaren eskumatan jarri beharrean izenaren ezkerretan jartzeko joera hartu dutela eta joera honi eutsi egiten diotela.

2.2.2. Objektu zuzenak lehen eta bigarren pertsona direnean, eta batzuetan hirugarrena denean ere, hurrek NORI kasuarekin edo datiboaren markarekin gauzatzen dute izen sintagma objektua eta mota honetako markak eranstean dizkio-
te adizki laguntzaileari (ikus Ezeizabarrenaren lana JAKINGARRIAK honetan):

(13) *zuri ikusi dizut, *niri jo didazu,
*amari ekarri diogu,...

Guk arakatutako ekoizpenetan ea ez dugu *zaitut*, *nauzu* eta antzeko aditzik ikusi, eta ikusi ditugun apurrak badirudi helduen eragin zuzenaren ondorioak direla. Badirudi objektu

zuzenak lehen edo bigarren pertsona denean, edo pertsonaren bat, datiboaren markarekin gauzatu behar dela eta honi dago-
kion adizki laguntzailea ere ekoitzi behar dutela erabaki dute-
la. Ostera, objektu zuzenak hirugarren pertsona dagoenean eta gauza bat denean, batzuetan pertsona bat izanik ere, NOR kasuaren edo absolutiboaren marka eranstean diote:

(14) nik txakurra ikusi dut, pelota jo duzu,
harria ekarri dugu,...

Objektu zuzenak NOR kasuarekin edo NORI kasuarekin janztea, dirudienez, objektuaren mailaren arabera egitea erabaki dute. Izenordaina (ni, zu, gu,...) edo pertsonaren bat bada, datiboak aukeratzen dute; gauzaren bat bada, ostera, absolutiboak. Objektua gizakia izan barik biziduna denean, gauzak ez daude hain argi eta bietarikoak ikus ditzakegu.

Edonola ere, ez dugu ahantzi behar helduok ere jokabide berbera dugula zenbait aditzekin. Adibide garbia da, zenbait euskalkitan behintzat, *itxaron* aditzarekin gertatzen dena helduon hizkeran. Objektua pertsona bada, datiboarekin markatzen dugu (15), pertsona ez bada, ostera, absolutiboarekin (16).

(15) etxetik irten barik itxarongo diot lehengusuari

(16) zure mesedea itxarongo dut

Hauren eta helduen arteko ezberdintasuna honetan datza: helduok aditz jakin batzuekin baino ez dugula honela jokatzen, hurrek, ordea, lege hau guztiz hedatu dutela eta, antza denez, aditz guztiekin gauza bera egiten dutela. Hainbat tokitan, hainbatetan, bitarteko urratsetan ere egon daitezke haurrak.

2.2.3. Orainaldiko formei iragantasanaren *-(e)n* marka erantsiz osatzen dituzte sarritan iraganeko adizkiak:

(16) *atzo ikusi dugun, *lehengoan esan dizudan,
*atzo ekarri diguzun,...

Guk bilduriko adibideetan umeek sarritan jorratzen dute bide hau, eta batzuren, elebakarra edo elebiduna izateak mugarik markatzen ez duela, forma hauek nagusitu egiten dira. Oro har, ez dira erabiltzen dituzten bakarrak, baina gehienetan erabiltzen dituztenak bai.

Alabaina, halako formen erabilerak badu banaketa bat. *Nor* motako adizkien iraganak itxarongarriak izaten dira (*nintzen*, *zinen*, *zen*,...). *Nor-nork* motako iraganak, ostera, bi eraketa izaten dira (*nuen*, *zenuen*, *zuen*,... eta *dudan*, *duzun*, *dugun*,...). *Nor-nori-nork* motako iraganak batez ere forma berrikoak izaten dira (*didazun*, *dizkiozun*,...).

Jokabide honen zioak aurkitzean guri bi datorzkigu gogorra. Batetik, argi dago umeek berehala jabetu direla *-(e)n* morfemaren balioaz iraganeko adizkiak egiteko. Baina honek,

gure ustez, ez du dena azaltzen, zeren *nor* motako iraganak erabiltzean ez dute bide hau jorratzen eta.

Bestetik, *nor-nork* eta *nor-nori-nork* motetako adizkietan (gogoan izan 2.2.2. atalean esan dugunaren arabera umeek darabiltzaten adizkiak objektua hirugarren pertsonatzat daukatenak direla), iraganak eraikitzerakoan, komuntaduran subjektuari dagokion marka lekuz aldatzen dugu. Hau da, orainaldian *dugu* bada aditza, subjektuari dagokion marka *-gu* atzizkia da, edo dizut bada, subjektuari dagokion marka *-t* atzizkia da. Alabaina adizki bi hauen iraganetan, *genuen* eta *nizun* alegia, subjektuei dagozkien markak *gen-* eta *n-* aurrizkiak dira. Markak aldatzeaz gain, egongunea ere aldatu da.

Bi zio hauek dira, gure eritziz, umeek kontutan hartu dituztenak iraganeko forma berriak eraikitzeko.

2.2.4. Batzuetan hurrenkera izaten da aldatzen dutena. Guk aztertu ditugun hurrek, adizki trinkoa esaldiaren hasiera-hasieran ere jartzen dute:

(17) *zara tontoa, *daukat panpina,...

Hurrenkera berri honen arabera, edozein ordena egin daitekeela esan dezakegu. Halakoak, ume batzuren bano ez ditugu ikusi, baina behin erabiltzen hasi ezker, bost, sei, zazpi urte izan arte, edo beharbada beranduagora arte, erabil ditzaketela iruditzen zaigu.

Garrantzia handiko besterik ez dugu ikusi. Ez dugu esan nahi ez denik, guk bildu ez dugula bano, edo konturatu ez garela. Kontutan izan behar da ume gutxiren ekoizpenak aztertu ditugula.

3. ONDORIOAK

Arauetatik desbideraturiko ekoizpenen artean bi multzo bereizi ditugu. Batetik, umeentzat aldi labur edo zehatz baten arazo bano ez diren egiturak. Hauek jabekuntzaren garapenaren ondorioak direla dirudi, eta umeak laster moldatzen dira araura.

Bestetik, 'akatsak' edo 'asmatuak' jaso ditugu. Egitura hauetan umeak bide berriak urratzen dituzte, helduok ezarritako arauetatik desbideratzen diren bide berriak, alegia. Gainera, gure datuen arabera luzaro iraun dezakete umeengan, batzuetan hamar urte izan arte ere.

Bigarren hauek direla eta, sarritan entzuten da erdarak eragindakoak direla. Guk aukera hori ukatu edo baztertu barik, batzuetan umeek gramatika garatzeko duten gaitasunari ere sor diezazkiokegula erakutsi dugu.

Kontua zera da, umeen bapateko hizkera zuzendu eta arauetara erakarri egin behar da ala ez? Pentsatutik erantzuna baietza dela, hots, araua(k) erakutsi egin behar zai(zki)ela eta araua(k) erabil arazi egin behar zai(zki)ela -une honetan toki honetan eztabaida honetan edo antzekoan ezin gaitzkeela sartu onarturik-, non, noiz eta nola dira galderak?

Zuzentzekotan, soilik idazterakoan eta euskararen erabilera formalean ala, ordea, inguru guztietan, ume arteko hizkeran ere, zuzentzen saiatu behar dugu? Erantzuna ezein delarik, eskolaren zeregina -hiztun helduena, komunikabideena, idatziena, eta abarrena ahantzi barik- garrantzitsua da. Eskolaren bidez egin daitekeena, gure ustez, bitan ardaiz daiteke: hizkuntza idatziaren eta hizkuntza mintzatuaren erabilera formalean.

Amaitzeko, aipatu nahi dugu, inguruko erderetan ere gertatzen direla halako fenomenoak, besteak beste, hona hemen gaztelaniaz bildu ditugun zenbait: *este juguete me lo pido, tú te la quedas* (jokuetan, *tú te quedas* eskatzen duten inguruetan), *señorita éste se me copia, tú vinistes,...* Halako adibideetan argi dago umeak helduon eredutik desbideratu egiten direla.




Arrasateko Umezaintza

Bibliografía

- AGUADO, Gerardo (1995), *El desarrollo del lenguaje de 0 a 3 años*. Madrid: Ciencias de la Educación Especial y Preescolar.
- BARREÑA, Andoni (1994), Deklinabidearen jabekuntza-garapena haur euskaldun elebakar baten, *Euskera* (2. aldia) 39-2, 505-537.
- BARREÑA A. (1994), Haur euskaldun elebakar baten mendeko perpausen jabekuntza-garapena. *TANTAK Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntz Aldizkaria* 12, 45-73.
- BARREÑA, Andoni (1995), *Gramatikaren jabekuntza-garapena eta haur euskaldunak*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitaralpen Zerbitzua.
- BARREÑA, A. (1996), Aditz-aldiaren erabilera goiztiarra haur euskaldun elebakar baten. *Hizpide. Euskalduntze-alfabetatzearen aldizkaria* 35, 25-38.
- BARREÑA, Andoni & Almgren, Margareta (1996), Adquisición bilingüe y diferenciación de códigos lingüísticos: ergatividad del euskara versus acusatividad del español. International Association for the Study of Child Language elkarteak Istanbulen eraturiko VIIth International Congress-en aurkezturiko lana.
- BRUNER, J.S. (1990), *Acts of meaning*. Cambridge: Harvard College. Gaztelera, *Actos del significado*. Madrid: Alianza (1991).
- DIXON, R. M. W. (1994), *Ergativity*. Cambridge: Cambridge University Press.
- CARREIRA, M. (1991), The acquisition of Spanish syllable structure. D. Wanner & D. Kibber (Arg.) *New Analyses in Romance Linguistics*. Amsterdam: Benjamins, 3-18.
- ELOSEGI, K. (1991), Lexikoaren garapena haur elebidun baten hizkuntza jabekuntza prozesuan. Idiazabal, I. (Arg.), *Hizkuntza jabekuntza haur elebidun eta elebakarretan*. Donostia: EHUko argitarapen zerbitzua, 197-210.
- ELOSEGI, Kristina (1996), *Kasu eta preposizioen jabekuntza-garapena haur elebidun baten*. Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea - Doktorego Tesia.
- ETXEBARRIA, M. (1997, prentsan), El proceso de adquisición del componente fonológico en niños bilingües (vasco/español). *I Simposio Internacional sobre o Bilingüismo: Comunidades e Individuos bilingües*. Vigo, 1997-10-21/25.
- EUSKALTZAINDIA - GRAMATIKA BATZORDEA (1993), *Euskal gramatika laburra*. Perpaus Bakuna (EGLU). Bilbo: Euskaltzaindia.
- EZEIZABARRENA, María José (1996), *Adquisición de la morfología verbal en euskera y castellano por niños bilingües*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitaralpen Zerbitzua.
- EZEIZABARRENA, María José & Larrañaga, Pilar (1996), Ergativity in Basque: a problem for language acquisition? *Linguistics* 34, 955-991.
- GARAY, J. & M. GARAI-GORDOBIL (1991), "Euskararen jabekuntza: hizkuntzaurrea". Idiazabal, I. (arg.), *Hizkuntza jabekuntza haur elebidun eta elebakarretan*. Donostia: EHUko argitarapen zerbitzua, 211-232.
- HERNÁNDEZ PINA, Fuensanta (1984), *Teorías psicolingüísticas y su aplicación al adquisición del español como lengua materna*. Madrid: Siglo XXI.

- IDIAZABAL, I. (1991), (1991), Izen-sintagmaren determinante-artikulua eta bere jabekuntza. Lehenengo emaitzak euskeraz eta erderaz. Idiazabal, I. (arg.), *Hizkuntza jabekuntza haur elebidun eta elebkarretan*. Donostia: EHUko argitarapen zerbitzua, 169-182.
- LARRAÑAGA, Pilar (1994), La evolución del caso en euskera y castellano. Meisel, J. M. (Arg.) *La adquisición del vasco y del castellano en niños bilingües*. Madrid: Editorial Iberoamericana.
- LLEÓ, C. (1986), "The evolution of syllabic structure as an example of the interaction between universal restrictions and individual strategies in first language acquisition". M. Brame etab. (arg.) *A Festschrift for Sol Saporta*. Seattle: Noit Amrofer, 275-288.
- SARASOLA, Ibon (1996), *Euskal Hiztegia*. Donostia: Kutxa fundazioa.
- OYHARÇABAL, B. (1989), "Izenordain espletiboak eta euskal aditzaren morfologia". P. Salaburu (arg.), *Sintaxi teoria eta euskara*. Donostia: Euskal Herriko Unibertsitatea, 109-119.
- TRASK, R.L., (1981), "Basque verbal morphology". *Euskalarien nazioarteko jardunaldiak*. Iker 1. Bilbo: Euskaltzaindia, 285-304.
- ZUBIRI, Juan Joxe (1995), Euskarazko haur-hizkuntzaren berezitasunak. *Huarte de San Juan* 1, 175-203.
- ZUBIRI, Juan Joxe (1997), *Izen Sintagmaren determinazioa eta kasuen jabekuntza eta garapena hiru urte arte*. Goizuetako bi haur euskaldun elebkarren jarraipena. Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea - Doktorego Tesia.



Arrasateko Umezaintza

Hiztegia

Absolutibo: NOR kasua.

Aditz jokatu: aldiaren eta pertsonen markak hartzen dituen aditza, hala nola, ekarri dut, ekar beza, ekartzen dizugu,...

Aditz jokatugabe: aldiaren edo pertsonaren markarik hartzen ez duen aditza, hala nola, ekar, ekarri, ekartzen, ekartze-ko,...

Aditzarekiko komunztadura: aditzaren eta subjektu eta objektuen artean gertatzen den morfemen bidezko harremana edo adostasuna.

Argumentu: Aditzak komunztadura duen esaldi osagaiak: Subjektua, Objektu Zuzena eta Zehar Objektua.

Aro aurremorfoloikiko: haurren hizkuntzaren jabekuntzaren garapenaren hasieran garatzen den morfoloikaririk gabeko aroa. Haurrek morfoloikaririk erabiltzen ez duten hasierako aldia.

Aspektu: Partizipioko atzizkiaren arabera adierazten den burutu / ez burutu bereizketa: adz. *ikus*̄*i dut* (bukatua) / *ikus-ten dut* (bukatu gabe).

Aurrizki: hitzaren hasieran jartzen den hizkia edo osagaia.

Atzizki: hitzaren amaieran jartzen den hizkia edo osagaia.

Datibotasun: Zeharkako osagarriaren morfemak aditzean isladatzen direnean.

Ekoizpen: haurrak esandakoa

Ergatibo: NORK kasua.


Ez-egokiatasun: Gramatikaren arauekin bat ez datorrenaren nolakotasuna

Hondarki: Deklinabidea, aditz jokatua, numeroa... adierazten duten morfemen multzoa.

Iragangaitz: objekturik edo osagairik onartzen ez duen aditza.

Iragankor: objektua edo osagaia eskatzen duen aditza.

Iragangaitz ezergatibo: objekturik eskatzen ez duten aditzak diren arren (jolastu, irakin,...), euskaraz aditz iragankor legez jokatzen dutenak, subjektua NORK edo ergatibo kasuaz jantzurik.



Arrasateko Umezaintza



Komunztadura: Aditzak eta argumentuek dituzten pertsona eta numero marken arteko adostasuna.

Mendetasun: txertatua denaren nolakotasuna.

Morfema edo hizki: esanahia duen hitzaren osagaia. Adz *zatozte* morfema bat baino gehiagoz osatuta dago: *z-* (2. pertsona); *-ato-* (etorriren aditz erroa orainaldian) *-z-* (plural marka), *-te* (plural marka).

Morfologia: gramatika harremanak adierazteko hitzek hartzen dituzten forma ezberdinak edo hizkiak.

Mugagabe: Mugagabe edo indeterminatua, ez singularra/ez plurala dena da eta **ezaguna/ez-ezaguna** eskeman sartzen dena. Ezaugarri nagusia, *-a* artikularen ez-agerpena da.

Paradigma: Ezaugarri jakinen baten arabera aditzaren aldaerak biltzen dituen forma zerrenda. Kasu marka guztiek osatzen duten multzoari ere horrela dei diezaiokegu.

Perifrazi edo aditz perifrastikoa: bi (edo gehiago) hitzez osatutako aditz forma, normalean laguntzailea eta partizipioaz. Adz. *etorri naiz*.

Perpau txertatu: mendeko perpaua, perpau subordinatua,... Perpau elkartuen artean maila berekoak ez direnean bata perpau txertatua da.

Txertagailu: mendetasuna markatzen duen elementua: *-t(z)ea*, *-(e)la*, *-(e)n*,...

Txertagailu aske: idaztean aditzari erantsi barik agertzen den txertagailua: *ze*, *zeren*,... Sarritan esaldi txertatuaren hasieran joaten dena.

14 AUTORE Haur Literaturan

Libruska honek 14 autore biltzen ditu: Batetik, nahiko ezezagunak direlako eta, bestetik, horrelako autoreei buruz ez delako inongo hausnarketarik egin gure artean. Eta nahiz eta beste autore batuzk ere oso interesgarriak izan, honako hamalau hauek aukeratu ditugu oraingoan: Asun Balzola, Anthony Browne, Helme Heine, Janosh, Leo Lionni, Arnold Lobel, David McKee, Helen Oxenbury, Tony Ross, Maurice Sendak, Carme Solé i Vendrell, Grégoire Solotareff, Tomi Ungerer eta Rosemary Wells.

Gure ustez, irudi-liburu ederrekin irakurketaren zaletasuna gara dezakegu. Eta ez zaletasuna bakarrik, baita gozamen estetikoa ere. Hori da, behinik behin, gure erronka.

Haur Liburu Mintegia
Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
Eskoriatza.

14 Autores



haur literatura infantil

ESKAERA ORRIA

JAKINGARRIAK

AUTOREA:

ARTIKULUAREN IZENBURUA:

ALDIZKARIAREN IZENA:

..... Zk.....

ORRIALDEAK:

AUTOREA:

ARTIKULUAREN IZENBURUA:

ALDIZKARIAREN IZENA:

..... Zk.....

ORRIALDEAK:

AUTOREA:

ARTIKULUAREN IZENBURUA:

ALDIZKARIAREN IZENA:

..... Zk.....

ORRIALDEAK:

Artikulu bat nahi ezkeru, bidali ezazu orrialde hau (korreoz edo faxez)

E
S
K
A
E
R
A
O
R
R
I
A

AMIAU GARBIAK

GRAFIKOAK
Gai

Monografikoa

Eskoletako Esperientziak

Baliabidea

Ber

skoletako Esperien

